**ORGANOA:** Udalbatzar Txit Garaia
**ÓRGANO:** Excmo. Ayuntamiento Pleno

**BATZARRALDIA:** Ohikoa
**SESIÓN:** Ordinaria

**TOKIA:** Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa
**LUGAR:** Salón de Plenos de la Casa Consistorial

**EGUNA:** 2017ko maiatzak 25
**FECHA:** 25 de mayo de 2017

**HASIERA ORDUA:** 09:30
**HORA DE COMIENZO**: 09:30

**LEHENDAKARIA:** Eneko Goia Laso jauna, Donostiako Udal Txit Garaiko Alkatea.
**PRESIDE:** Don Eneko Goia Laso, Alcalde del Excmo. Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián.

**ETORRITAKOAK:** Alkateorde jaun-andreak:
**ASISTEN:** Los/las señores/as Tenientes de Alcalde:

Don Ernesto José Gasco Gonzalo jauna
Doña Miren Azkarate Villar andrea
Doña Duñike Agirrezabalaga Ugarte andrea
Don Juan Ramón Viles Mitxelena jauna

Eta ondorengo zinegotzi jaun-andreak:
Y los/las señores concejales/as:

Doña Pilar Arana Pérez andrea
Don Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga jauna
Doña Aitziber San Román Abete andrea
Don Martin Ibabe Eceiza jauna
Doña María Jesús Celaya Egiguren andrea
Don Jon Insausti Maisterrena jauna
Don Enrique José Ramos Vispo jauna
Don Miguel Ángel Díez Bustos jauna
Doña María Luisa del Pilar García Gurruchaga andrea
Don Alfonso Gurpegui Ruiz jauna
Doña Miren Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andrea
Don Josu Mirena Ruiz Martín jauna
Doña Naiara Sampedro Pérez andrea

Don Axier Jaka Goikoetxea jauna
Doña Olaia Duarte López andrea
Don Ricardo Burutarán Ferré jauna
Doña Miren Albistur Garmendia andrea
Don José Luis Arrúe Pintó jauna
Don José María Murguiondo Casal jauna
Doña Amaia Martín Garín andrea
Don Loïc Alejandro jauna

**EZ DA ETORRI:** Ondorengo zinegotzi andrea:
**NO ASISTE:** La señora concejala:

Doña Begoña Palos Barbero andrea

**IDAZKARIA:** Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga jauna, Donostiako Udal Txit Garaiko Udalbatzarreko idazkari nagusia.
**SECRETARIO:** Don Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga, Secretario General del Pleno del Excmo. Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián.

**KONTU-HARTZAILEA:** Julian Ortiz Arruabarrena jauna, Udal Kontuhartzaile Nagusia.
**INTERVENTOR:** Don Julián Ortiz Arruabarrena, Interventor General Municipal.

---------------


| **LABURPENA** | **Zk/ N.º** | **SUMARIO** | **Pág / Orr.** |
|---|---|---|---|
| Gai Zerrendatik Kanpoko 1. gaia presazkotzat jotzea. | | Tratamiento de Urgencia del asunto N.º 1 Fuera del Orden del Día del Pleno. | 5 |
| Gai Zerrendatik Kanpoko 2. gaia presazkotzat jotzea. | | Tratamiento de Urgencia del asunto N.º 2 Fuera del Orden del Día del Pleno. | 5 |
| 2017ko apirilaren 27an izandako bileraren akta onartzea, ontzat joz gero. | 1 | Aprobación, si procede, del acta de la sesión celebrada el 27 de abril de 2017. | 6 |
| Bozeramaileen Batzordean onartutako erakunde adierazpenen berri ematea. | 2 | Dar cuenta de las Declaraciones Institucionales aprobadas en la Junta de Portavoces. | 6 |
| **ERABAKI ZATIA** | **I** | **PARTE RESOLUTIVA** | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **LURRALDEAREN GARAPEN ETA PLANIFIKAZIO BATZORDEA** | | **COMISIÓN DE DESARROLLO Y PLANIFICACIÓN DEL TERRITORIO** | |
| Berrestea Donostiako Udalak 2016ko abenduaren 20an Artzabaleta NU.06 Plan Berezia behin betiko onartzeko hartu zuen erabakiaren espedientea bidaltzea eta Lege Zuzendaritzari erabaki hori defendatzeko agintzea. | 3 | Ratificación de remisión del expediente y encargo a la Dirección Jurídica de la defensa del acuerdo municipal de 20-XII-2016 del Ayuntamiento de San Sebastián de aprobación definitiva del Plan Especial NU.06 Arzabaleta. | 7 |
| **ZERBITZU OROKORRETAKO BATZORDEA** | | **COMISIÓN DE SERVICIOS GENERALES** | |
| Hasierako onarpena ematea Oroimen Historikoaren Kontseilu Sektorialaren Araudi aldatuari. | 4 | Aprobación inicial de la modificación del Reglamento del Consejo Sectorial de Memoria Histórica. | 10 |
| **MOZIOAK** | **II** | **MOCIONES** | |
| **MOZIO ARRUNTAK** | **II.1** | **MOCIONES ORDINARIAS** | |
| Mozio arrunta, PP taldeak aurkeztua, Donostiako kaiko biltegietarako eraikinari buruzkoa. | 5 | Moción ordinaria, presentada por el Grupo PP, sobre el edificio “portaaviones” del Muelle de San Sebastián. | 16 |
| Mozio arrunta bateratua, EH BILDU, PP eta IRABAZI DONOSTIA taldeek aurkeztua, garraio publikoko txartelei eta dBuseko txartelei buruzkoa. | 6 | Moción ordinaria conjunta, presentada por los Grupos EH BILDU, PP e IRABAZI DONOSTIA, sobre las tarjetas de transporte público y las tarifas de dBus. | 21 |
| Mozio arrunta, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Gipuzkoako Foru Aldundiak Donostia izena errespetatzeari dagokiona. | 7 | Moción ordinaria presentada por el Grupo EH BILDU para instar a la Diputación Foral de Gipuzkoa a que respete el nombre de Donostia. | 26 |
| Mozio arrunta, EAJ-PNV, PSE-EE, EH BILDU, PP eta IRABAZI DONOSTIA taldeek aurkeztua, Zubietako Eskola Txikian lehen hezkuntzako ziklo osoa ezartzeari buruzkoa. | 8 | Moción ordinaria, presentada por los Grupos EAJ-PNV, PSE-EE, EH BILDU, PP e IRABAZI DONOSTIA, sobre la ampliación a toda la etapa de Educación Primaria del Colegio Público Zubieta. | 29 |
| **KONTROL MOZIOAK** | **II.2** | **MOCIONES DE CONTROL** | 33 |

---------------

DONOSTIAKO UDALBATZAR TXIT GARAIAREN OSOKO BILKURA OHIKOA HASITAKOTZAT JOTZEN DA.

SE DECLARA ABIERTA LA SESIÓN PLENARIA ORDINARIA DEL EXCMO. AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN.

---------------

GAI ZERRENDAKO AZTERGAIAK BOZKATZERAKOAN FALTA ZIREN ZINEGOTZIAK:

AUSENCIAS DE LOS SRES. CORPORATIVOS A LA VOTACIÓN DE LOS DIFERENTES PUNTOS DEL ORDEN DEL DÍA:

- MIREN AZKARATE VILLAR ANDREA (EAJ-PNV), GAI ZERRENDATIK KANPOKO 1. ETA 2. GAIA PRESAZKOTZAT JOTZEAREN BOZKETAN; 1., 2., 3., 4., 5., 6., 7. ETA 8. GAIEN BOZKETAN ETA 1. ETA 26. KONTROL MOZIOEN BOZKETAN.

- Dª. MIREN AZKARATE VILLAR (EAJ-PNV), EN LA VOTACIÓN DEL TRATAMIENTO DE URGENCIA DE LOS ASUNTOS FUERA DEL ORDEN DEL DÍA N.º 1 Y N.º 2; EN LA VOTACIÓN DE LOS ASUNTOS N.º 1, N.º 2, N.º 3, N.º 4, N.º 5, N.º 6, N.º 7, N.º 8 Y EN LA VOTACIÓN DE LAS MOCIONES DE CONTROL N.º 1 Y N.º 26.

- OLAIA DUARTE LOPEZ ANDREA (EH BILDU), 3. GAIAREN BOZKETAN ETA 4. KONTROL MOZIOAREN BOZKETAN.

- Dª. OLAIA DUARTE LOPEZ (EH BILDU), EN LA VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 3 Y EN LA VOTACIÓN DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 4.

- MIGUEL ANGEL DIEZ BUSTOS JAUNA (PSE-EE), 6. KONTROL MOZIOAREN BOZKETAN.

- D. MIGUEL ÁNGEL DÍEZ BUSTOS (PSE-EE), EN LA VOTACIÓN DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 6.

- AMAIA ALMIRALL LOPEZ DE LUZURIAGA ANDREA (EH BILDU), 6. KONTROL MOZIOAREN BOZKETAN.

- Dº. AMAIA ALMIRALL LOPEZ DE LUZURIAGA (EH BILDU) EN LA VOTACIÓN DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 6.

- AXIER JAKA GOIKOETXEA JAUNA (EH BILDU), 6. ETA 7. KONTROL MOZIOEN BOZKETAN.

- D. AXIER JAKA GOIKOETXEA (EH BILDU), EN LA VOTACIÓN DE LAS MOCIONES DE CONTROL N.º 6 Y N.º 7.

- ERNESTO GASCO GONZALO JAUNA (PSE-EE), 10. KONTROL MOZIOAREN

- D. ERNESTO GASCO GONZALO (PSE-EE), EN LA VOTACIÓN DE LA MOCIÓN DE

**BOZKETAN.**

**CONTROL N.º 10.**

---------------

**Gai Zerrendatik Kanpoko 1. gaia presazkotzat jotzea.**

**Tratamiento de Urgencia del asunto N.º 1 Fuera del Orden del Día del Pleno.**

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto la señora Dª. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**Gai Zerrendatik Kanpoko 2. gaia presazkotzat jotzea.**

**Tratamiento de Urgencia del asunto N.º 2 Fuera del Orden del Día del Pleno.**

Alkate-Udalburuak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el señor Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**1. 2017ko apirilaren 27an izandako bileraren akta onartzea, ontzat joz gero.**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**1. Aprobación, si procede, del acta de la sesión celebrada el 27 de abril de 2017.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**2. Bozeramaileen Batzordean onartutako erakunde adierazpenen berri ematea.**

“Udalbatzari:

2017ko maiatzaren 23an Bozeramaileen Batzordean onartutako Erakunde Adierazpenen berri ematen zaio:

Erakunde adierazpena, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Donostiako preso baten senideek jazotako istripua dela-eta. PUNTUKA BOZKATU DA:

- 2. Puntua: Gehiengoz onartua, EAJ/PNV, PSE-EE, EH BILDU eta IRABAZI DONOSTIA Taldeko Bozeramaileen aldeko botoekin eta PP Taldeko Bozeramailearen aurkako botoarekin.

- 3. Puntua: Aho batez onartua.

Erakunde adierazpena, IRABAZI Taldeak aurkeztua, esnea ekoizteko Europako abeletxerik handienaren kontra.(Gehiengoz onartua, EAJ/PNV, PSE-EE, EH BILDU eta IRABAZI DONOSTIA Taldeko Bozeramaileen aldeko botoekin eta PP Taldeko Bozeramailearen abstentzioarekin).

Erakunde adierazpena, EAJ-PNV, PSE-EE, PP eta IRABAZI DONOSTIA Taldeek aurkeztua,

**2. Dar cuenta de las Declaraciones Institucionales aprobadas en la Junta de Portavoces.**

“Al Ayuntamiento Pleno se da cuenta de:

Declaraciones Institucionales aprobadas en Junta de Portavoces de fecha 23 de mayo de 2017:

Declaración Institucional presentada por el Grupo EH BILDU ante el accidente padecido por familiares de un preso donostiarra. VOTACIÓN POR PUNTOS:

- Punto nº2: Aprobado por mayoría, con los votos a favor de los Portavoces de los Grupos EAJ/PNV, PSE-EE, EH BILDU e IRABAZI DONOSTIA y el voto en contra de la Portavoz del Grupo PP.

- Punto nº3: Aprobado por unanimidad.

Declaración Institucional presentada por el Grupo IRABAZI, contra la granja lechera más grande de Europa. (Aprobada por mayoría, con los votos a favor de los Portavoces de los Grupos EAJ/PNV, PSE-EE, EH BILDU e IRABAZI DONOSTIA y la abstención de la Portavoz del Grupo PP).

Declaración Institucional presentada por los Grupos EAJ-PNV, PSE-EE, PP e IRABAZI

ETAko preso ohien omenaldiei buruzkoa. (Gehiengoz onartua, EAJ/PNV, PSE-EE, PP eta IRABAZI DONOSTIA Taldeko Bozeramaileen aldeko botoekin eta EH BILDU Taldeko Bozeramailearen aurkako botoarekin).

DONOSTIA sobre homenajes a expresos de ETA. (Aprobada por mayoría, con los votos a favor de los Portavoces de los Grupos EAJ/PNV, PSE-EE, PP e IRABAZI DONOSTIA y el voto en contra de la Portavoz del Grupo EH BILDU).

Donostian, 2017ko maiatzaren 24an

IDAZKARI NAGUSIA
SECRETARIO GENERAL
Juan Carlos ETXEZARRETA VILLALUENGA".

**BOZKETAREN EMAITZA:
JAKINEAN.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
ENTERADO.**

--------------

**I**

**ERABAKI ZATIA**

**LURRALDEAREN GARAPEN ETA PLANIFIKAZIO BATZORDEA**

**3. Berrestea Donostiako Udalak 2016ko abenduaren 20an Artzabaleta NU.06 Plan Berezia behin betiko onartzeko hartu zuen erabakiaren espedientea bidaltzea eta Lege Zuzendaritzari erabaki hori defendatzeko agintzea.**

"DONOSTIAKO UDALAK 2016KO ABENDUAREN 20AN NU.06 ARTZABALETA PLAN BEREZIA BEHIN BETIKO ONARTZEKO HARTU ZUEN ERABAKIAREN ESPEDIENTEA BIDALTZEA ETA ERABAKI HORI DEFENDATZEKO AGINTZEA LEGE ZUZENDARITZARI

AKORDIOA

**I**

**PARTE RESOLUTIVA**

**COMISIÓN DE DESARROLLO Y PLANIFICACIÓN DEL TERRITORIO**

**3. Ratificación de remisión del expediente y encargo a la Dirección Jurídica de la defensa del acuerdo municipal de 20-XII-2016 del Ayuntamiento de San Sebastián de aprobación definitiva del Plan Especial NU.06 Arzabaleta.**

"REMISION DE EXPEDIENTE Y ENCARGO A LA DIRECCION JURIDICA DE LA DEFENSA DEL ACUERDO MUNICIPAL DE 20 DE DICIEMBRE DE 2016 DEL AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIAN DE APROBACION DEFINITIVA DEL PLAN ESPECIAL NU.06 ARZABALETA

A C U E R D O

Alkateak, 2017ko martxoaren 31n, ebazpen hau eman du:

EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak komunikazio bat bidali dio Donostiako Udalari, NU.06 Artzabaleta Plan Berezia behin betiko onartzeko erabakiari buruzko administrazio espedientea eskatzeko, Hernaniko Udalak 168/2017 administrazioarekiko auzi errekurtso arrunta jarri duela-eta Donostiako Udalak 2016ko abenduaren 20an hartutako erabaki haren aurka.

1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzekoak, 48. eta 49. artikuluetan eta 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzekoak, 124.l artikuluan xedatzen dutena betez, alkateak, presa dela eta, honako hau

E B A Z T E N D U

1. Bidaltzea EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari NU.06 Artzabaletako Plan Bereziaren administrazio espedientea, Donostiako Udalbatzak 2016ko abenduaren 20ko bilkuran behin betiko onartua.

2. Udal honetako Lege Zuzendaritzari agintzea errekurritutako administrazio ekintza defenda dezala, eta ahalmena ematea, orobat, prozedurako gorabehera, izapide eta errekurtso guztietan jarduteko eta, hala behar baldin bada, baita adostasunezko proposamena aurkezteko ere, 29/1998 Legeko 77. artikuluak jarritako eran.

3. Udalbatzaren hurrengo osoko bilkuran aurkeztea ebazpena, hark berretsi dezan.

La Alcaldía, con fecha 31 de marzo de 2017, ha dictado la siguiente resolución:

la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribual Superior de Justicia del País Vasco ha dirigido una comunicación a este Ayuntamiento requiriendo la remisión del expediente administrativo con motivo del recurso contencioso-administrativo ordinario 168/2017 interpuesto por el Ayuntamiento de Hernani contra el acuerdo de 20 de diciembre de 2016 del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián, por el que se aprobó con carácter definitivo el Plan Especial NU.06 Arzabaleta.

De conformidad con lo dispuesto en los artículos 48 y 49 de la Ley 29/1998 de 13 de julio, reguladora de la jurisdicción contencioso-administrativa, así como lo dispuesto en el artículo 124.l de la Ley 7/1985 de 2 de abril, reguladora de las bases del Régimen Local, esta Alcaldía, por razones de urgencia,

R E S U E L V E

1. Remitir a la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribuna superior de Justicia del País Vasco el expediente administrativo correspondiente al Plan Especial NU.06 Arzabaleta, aprobado con carácter definitivo en sesión plenaria municipal de 20 de diciembre de 2016.

2. Encomendar a la Dirección Jurídica de este Ayuntamiento la defensa del acto administrativo impugnado y facltarle para que siga el procedimiento en todos sus incidentes, trámites ty recursos y, en su caso, para formular propuesta transaccional en los supustos cntemplados en el artículo 77 de la Ley 29/1998

3. Elevar la presente resolución a la próxima sesión plenaria que se celebre, para su ratificación

Horiek horrela direla, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 123 artikuluak agintzen duena aintzakotzat hartu eta, Donostiako Udalbatzak

E R A B A K I  D U

Berrestea alkateak 2017ko martxoaren 31n hartutako ebazpena, erabaki honetako azalpen zatian jasotako edukia duena.

Udalbatzak onar dezan proposatua, Donostian, 2017ko apirilaren 3a

Visto cuanto antecede y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 123 de la Ley 7/1985 de 2 de abril, resuladora de las Bases del Régimen Local, el Pleno de este Ayuntamiento,

A C U E R D A

Ratificar la resolución de la Alcaldía de 31 de marzo de 2017 cuyo contenido se ha incorporado en la parte expositiva del acuerdo

Lo proponen para su adopción por el Pleno Municipal, en Donostia/San Sebastián, a 3 de abril de 2017

HIRIGINTZAKO ANTOLAMENDU ETA EXEKUZIOKO ZERBITZU BURUA /
EL JEFE DEL SERVICIO JURÍDICO ADMINISTRATIVO DE ORDENACIÓN Y EJECUCIÓN

Izpta. / Fdo.: Jon Mikel Garagarza Roteta

HIRIGINTZA SOSTENGARRIRAKO ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE URBANISMO SOSTENIBLE

Sin. / Fdo.: Juan Carlos Cuevas Argandoña.

HIRIGINTZA SOSTENGARRIRAKO, ETXEBIZITZAKO ETA HIRI PROIEKTUETAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA
EL CONCEJAL DELEGADO DE URBANISMO SOSTENIBLE, VIVIENDA Y PROYECTOS DE CIUDAD

Sin. / Fdo.: Enrique Ramos Vispo".

Eztabaida hasita, Enrique Ramos Vispo jaunak, Loïc Alejandro jaunak, Miren Albistur Garmendia andreak eta Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Enrique Ramos Vispo, D. Loïc Alejandro, Dª. Miren Albistur Garmendia y Dª. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**

**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 17 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 5 – EH BILDU.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 17 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 5 – EH BILDU.**
**ABSTENCIONES: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

---------------

## ZERBITZU OROKORRETAKO BATZORDEA

**4. Hasierako onarpena ematea Oroimen Historikoaren Kontseilu Sektorialaren Araudi aldatuari.**

"UDALBATZARI

Oroimen Historikoaren Kontseilu Sektorialaren araudia aldatzea

Oroimen Historikoaren Kontseilu Sektoriala partaidetza organo bat da, 2015eko otsailaren 17an eratu zena Donostian, aholkularitza, informazioa, eztabaida, azterketa eta proposamenak egiteko gunea izateko, oroimen historikoaren alorrean giza eskubideak defendatzeko eta sustatzeko helburuarekin.

Organo hori Oroimen Historikoaren Kontseiluaren Araudiak eraentzen du (ikus 2014ko azaroaren 5eko GAO), eta, besteak beste, eta orain dagokigunerako, 3. artikuluko 2. paragrafoan arautzen ditu haren helburu zehatzak, honelaxe arautu ere:

a.- Donostiako Oroimen Historikoa, Gerra Zibilari eta Frankoren diktadurari dagokienez, berreskuratu eta zabaltzea.
b.- Gerra Zibilean eta Frankoren diktaduran gertatutako Giza Eskubideen urraketak aitortzea.
c.- Lankidetza sustatzea Gerra Zibilaren eta

## COMISIÓN DE SERVICIOS GENERALES

**4. Aprobación inicial de la modificación del Reglamento del Consejo Sectorial de Memoria Histórica.**

"AL PLENO DEL AYUNTAMIENTO

Modificación del reglamento del Consejo Sectorial de Memoria Histórica.

El Consejo Sectorial de la Memoria Histórica es un órgano de participación constituido en Donostia/ San Sebastián, el 17 de febrero de 2015, como espacio para el asesoramiento, la información, el debate, estudio y propuesta, que tiene como objetivo defender y promover los derechos humanos en el ámbito de la memoria histórica.

El Reglamento del Consejo Sectorial de la Memoria Histórica (BOG 5-11-2014) regula dicho órgano, regulando entre otros aspectos, y para la cuestión que aquí interesa, sus objetivos específicos, en el párrafo 2º del artículo 3, con el siguiente tenor literal:

a- Recuperar y difundir la Memoria Histórica de San Sebastián, en lo refrente a la Guerra civil y la dictadura franquista.
b- Reconocer las vulneraciones de los Derechos Humanos acaecidas durante la Guerra civil y la dictadura franquista.
c- Fomentar la cooperación entre las

Frankoren diktaduraren biktimen oroimen historikoaren inguruan lan egiten duten elkarteen artean eta udalarekikoak.
d.- Gerra Zibilaren eta Frankoren diktaduraren biktimek merezi dituzten egia, justizia eta erreparazio eskubideak sustatzea eta bultzatzea.

Oroimen Historikoaren Kontseilu Sektorialaren Osokoak, 2016ko ekainaren 15ean izan zuen bileran, Oroimen Historikoaren Kontseiluaren Araudiko 17.7 artikuluaren arabera dituen eskumenak erabili eta proposamen bat onartu zuen, helburu hauek zekartzana:

- Giza Eskubideen arloko nazioarteko araudiekin bat egitea.
- Berriro ez gertatzea bermatzea.

Hala, helburu horiek 3.2 artikuluko b) eta d) paragrafoei eranstea proposatzen zuen, eta, ondorioz, paragrafo horiek aldatu eta honela idatzita izatea:

- 3.2.b) Gerra Zibilean eta Frankoren diktaduran gertatutako Giza Eskubideen urraketak aitortzea, Giza Eskubideen arloko nazioarteko araudiekin bat eginda.

- 3.2.d) Gerra Zibilaren eta Frankoren diktaduraren biktimek merezi dituzten egia, justizia eta erreparazio eskubideak eta berriro ez gertatzeko bermeak sustatzea eta bultzatzea.

Beste alde batetik, 2014ko azaroaren 5eko GAOn (211 zk.) argitaratu zen testuan akats material batzuk direla konturatu gara, eta honela zuzendu behar dira akats haiek:

-4.artikuluko b) paragrafoak, euskarazko testuan, hala dio:

asociaciones que trabajan en relación a la memoria histórica de las víctimas de la Guerra civil y la dictadura franquista.
d- Impulsar y promover el derecho a la verdad, justicia y reparación de las que son merecedoras las víctimas de la Guerra civil y la dictadura franquista.

El Pleno del Consejo Sectorial de la Memoria Histórica del 15 de junio de 2016, en uso de las atribuciones reconocidas en el art. 17.7 del Reglamento del Consejo Sectorial de referencia, aprobó una propuesta, en la que asumía los objetivos de:

- La adhesión a las normas Internacionales en materia de Derechos Humanos.
- Garantías de no repetición.

Proponía la adición de dichos objetivos a los párrafos b) y d) del artículo 3.2, y en consecuencia la modificación dichos párrafos en los siguientes términos:

- Art. 3.2.b) Reconocer las vulneraciones de los Derechos Humanos acaecidas durante la Guerra Civil y la dictadura franquista, en base a las normas Internacionales en materia de Derechos Humanos.

- Art. 3.2.d) Impulsar y promover el derecho a la verdad, justicia, reparación y garantías de no repetición de las que son merecedoras las víctimas de la Guerra civil y la dictadura franquista.

Por otro lado, se han observado errores materiales en el texto publicado en el BOG nº 211 de 5 de noviembre de 2014, debiéndose proceder a su corrección con arreglo al siguiente texto:

-En la versión en Euskera en el párrafo b, del artículo 4, donde dice :

b) Kontseiluaren tematikarekin harremana duen aurrekontu proiektua aztertzea irizpideak, ekintzak, lehentasunak.

Hala esan behar du:

b) Kontseiluaren tematikarekin harremana duen aurrekontu proiektua aztertzea eta proposamenak egitea : irizpideak, ekintzak, lehentasunak.

9. artikulo laugarren paragrafoak, Gizarte-ospe berezia duten pertsonei edo kolektiboei dagokiena, hala dio:

Erakunde bakoitzak ahalegina egin beharko du bere ordezkariek bi hizkuntza ofizialetan aritzeko gaitasuna izan dezaten.

Hala esan behar du:

Gizarte-ospe berezia duten pertsona eta kolektibo bakoitzak ahalegina egin beharko du bere ordezkariek bi hizkuntza ofizialetan aritzeko gaitasuna izan dezaten.

-. 16 . artikuluko 4) paragrafoan, euskarazko testuan, hala dio:

Bilkuran parte hartuko dute ere hitza bai baina botorik ez duten honako hauek:

Hala esan behar du:

4. Lehendakariak gonbidatuta, bilkuran parte hartuko dute ere hitza bai baina botorik ez duten honako hauek:

-21. artikuluan lehen paragrafoan euskarazko testuan, hala dio:

Bilkurak egin, eztabaidak garatu eta akordioak hartzeko osoko bilkura balio osoz eratuko da

b) Kontseiluaren tematikarekin harremana duen aurrekontu proiektua aztertzea : irizpideak, ekintzak, lehentasunak.

Debe decir:

b) Kontseiluaren tematikarekin harremana duen aurrekontu proiektua aztertzea eta proposamenak egitea: irizpideak, ekintzak, lehentasunak.

-En el párrafo cuarto del artículo 9 relativo a “Las personas o colectivos de especial relevancia social” donde dice

Las entidades deberán intentar que las personas designadas para participar en las sesiones puedan desenvolverse en las dos lenguas oficiales.

Debe decir:

Las personas o colectivos de especial relevancia social deberán intentar que las personas designadas para participar en las sesiones puedan desenvolverse en las dos lenguas oficiales.

- En la versión en Euskera, en el párrafo 4 del artículo 16, donde dice :

Bilkuran parte hartuko dute ere hitza bai baina botorik ez duten honako hauek:

Debe decir:

4. Lehendakariak gonbidatuta, bilkuran parte hartuko dute ere hitza bai baina botorik ez duten honako hauek:

En la versión en Euskera, en el párrafo 1º del artículo 21, donde dice :

Bilkurak egin, eztabaidak garatu eta akordioak hartzeko osoko bilkura balio osoz eratuko da

kide guztien legezko zenbatekoaren erdia bertaratu bada eta, edonola ere, lehendakaritza eta idazkaritza betetzen duten pertsonak edo horien legezko ordezkoak bertaratu beharko dira. Bilkurak dirauen denbora guztian eutsi beharko zaio quorum horri.

Hala esan behar du:

Bilkurak egin, eztabaidak garatu eta akordioak hartzeko osoko bilkura balio osoz eratuko da lehen deialdian kide guztien legezko zenbatekoaren erdia bertaratu bada eta, edonola ere, lehendakaritza eta idazkaritza betetzen duten pertsonak edo horien legezko ordezkoak bertaratu beharko dira. Bilkurak dirauen denbora guztian eutsi beharko zaio quorum horri.

- 27 artikuluko lehen paragrafoko c) puntuan, gastelaniazko testuan, hala dio:

c. Hasta un máximo de cinco vocales elegidos entre los vocales integrantes del Pleno del Consejo. Estas serán elegidas por el Pleno del Consejo a propuesta de cualquiera de sus vocales y deberán tener la condición de vocales en representación de: las Entidades Ciudadanas, las personas o colectivos de especial relevancia social en el ámbito de Memoria Histórica, siendo el 50% de estas, vocales por representación de las Entidades Ciudadanas.

Hala esan behar du:

c. Hasta un máximo de cinco vocales elegidos entre los vocales integrantes del Pleno del Consejo. Estas serán elegidas por el Pleno del Consejo a propuesta de cualquiera de sus vocales y deberán tener la condición de vocales en representación de: las Entidades Ciudadanas, personas físicas, las personas o colectivos de especial relevancia social en el ámbito de Memoria Histórica, siendo el 50% de

kide guztien legezko zenbatekoaren erdia bertaratu bada eta, edonola ere, lehendakaritza eta idazkaritza betetzen duten pertsonak edo horien legezko ordezkoak bertaratu beharko dira. Bilkurak dirauen denbora guztian eutsi beharko zaio quorum horri.

Debe decir:

Bilkurak egin, eztabaidak garatu eta akordioak hartzeko osoko bilkura balio osoz eratuko da lehen deialdian kide guztien legezko zenbatekoaren erdia bertaratu bada eta, edonola ere, lehendakaritza eta idazkaritza betetzen duten pertsonak edo horien legezko ordezkoak bertaratu beharko dira. Bilkurak dirauen denbora guztian eutsi beharko zaio quorum horri.

-En la versión en castellano del artículo 27.1.c) donde dice:

c. Hasta un máximo de cinco vocales elegidos entre los vocales integrantes del Pleno del Consejo. Estas serán elegidas por el Pleno del Consejo a propuesta de cualquiera de sus vocales y deberán tener la condición de vocales en representación de: las Entidades Ciudadanas, las personas o colectivos de especial relevancia social en el ámbito de Memoria Histórica, siendo el 50% de estas, vocales por representación de las Entidades Ciudadanas.

Debe decir:

c. Hasta un máximo de cinco vocales elegidos entre los vocales integrantes del Pleno del Consejo. Estas serán elegidas por el Pleno del Consejo a propuesta de cualquiera de sus vocales y deberán tener la condición de vocales en representación de: las Entidades Ciudadanas, personas físicas, las personas o colectivos de especial relevancia social en el ámbito de Memoria Histórica, siendo el 50% de

estas, vocales por representación de las Entidades Ciudadanas.

29 artikuluko lehen paragrafoan, euskarazko testuan, hala dio:

Batzorde Iraunkorreko osaketa baliagarria izateko , lehendakariordeak, Idazkariak eta boto eskubideko kideen gutxienez erdiek bildu behar dute.

Hala esan behar du:

Batzorde Iraunkorreko osaketa baliagarria izateko Lehendakariak, Idazkariak eta boto eskubideko kideen gutxienez erdiek bildu behar dute.

- 30 artikuluko bigarren paragrafoan, euskarazko testuan, hala dio:

Edonola ere, Lehendakariordeak edo berak aukeratutako Batzorde Iraunkorreko vocal batek koordinaturik egongo dira.

Hala esan behar du:

Edonola ere, Lehendakariordeak edo berak aukeratutako Batzorde Iraunkorreko bokal batek koordinaturik egongo dira.

- 31. artikulua:

26 eta 27 artikuluen artean aurkitzen da, 15. orrialdean eta 30. artikuluaren ondoren joan beharko luke 17. orrialdean.

Udalbatzari dagokio Oroimen Historikoaren Kontseiluaren Araudia aldatzea onartzea.

Horiek horrela direla, Lehendakaritzako eta Gardentasuneko, Giza Baliabideetako eta Berrikuntzako zinegotzi ordezkariak erabaki hauek hartzea proposatu nahi dio Udalbatzari:

estas, vocales por representación de las Entidades Ciudadanas.

En la versión en Euskera, en el párrafo 1º del artículo 29, donde dice :

Batzorde Iraunkorreko osaketa baliagarria izateko lehendakariordeak, Idazkariak eta boto eskubideko kideen gutxienez erdiek bildu behar dute.

Debe decir:

Batzorde Iraunkorreko osaketa baliagarria izateko Lehendakariak, Idazkariak eta boto eskubideko kideen gutxienez erdiek bildu behar dute.

- En la versión en euskara del párrafo segundo del artículo 30 donde dice:

Edonola ere, Lehendakariordeak edo berak aukeratutako Batzorde Iraunkorreko vocal batek koordinaturik egongo dira.

Debe decir:

Edonola ere, Lehendakariordeak edo berak aukeratutako Batzorde Iraunkorreko bokal batek koordinaturik egongo dira.

- Artículo nº31:

Se encuentra entre los artículos 26 y 27 en la página 15 y debería estar después del artículo 30 en la página 17.

Corresponde al Pleno del Ayuntamiento la aprobación de la modificación del Reglamento del Consejo Sectorial de la Memoria Histórica.

En su vista el Concejal Delegado de Presidencia y Transparencia, Recursos Humanos e Innovación propone al Pleno del Ayuntamiento la adopción de los siguientes,

ERABAKIAK:

LEHENENGOA: Hasierako onarpena ematea Oroimen Historikoaren Kontseiluaren Araudiko 3.2) artikulua b) eta d) paragrafoak gehituta aldatzeari, erabaki honen azalpen zatian adierazitako eran.

BIGARRENA: Oroimen Historikoaren Kontseilu Sektorialaren arautegiaren maketazio eta itzulpen akatsak zuzentzea, erabaki honen azalpen zatian adierazitako eran.

HIRUGARRENA: Hogeita hamar (30) egunean jendaurrera aterata edukitzea testua, Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49. artikuluak agintzen duen eran, interesdunek egoki jotzen dituzten erreklamazioak eta iradokizunak egiteko bidea izateko.

Erreklamaziorik edo iradokizunik izaten ez bada, behin betiko onartutzat joko da hala Oroimen Historikoaren Kontseiluaren Araudiko 3.2) artikuluaren b) eta d) paragrafoen aldaketa nola akats zuzenketak, azalpen zatian adierazitako eran.

ACUERDOS:

PRIMERO: Aprobar inicialmente la modificación por adición de los párrafos b) y d) del artículo 3.2) del Reglamento del Consejo Sectorial de la Memoria Histórica en los términos descritos en la parte expositiva.

SEGUNDO: Rectificar los errores de hecho debidos a erratas de traducción y maquetación del Reglamento del Consejo Sectorial de Memoria Histórica, en los términos descritos en la parte expositiva.

TERCERO: Someter las precedentes modificaciones y correcciones de errores , al trámite de información pública durante el plazo de 30 días según lo dispuesto en el artículo 49 de la ley 7/85, de 2 de abril de Bases de Régimen Local, a fin de que los interesados puedan presentar las reclamaciones o sugerencias que estimen pertinentes.

En el caso de que éstas no se presenten se entenderá aprobada definitivamente tanto la modificación del artículo 3.2 párrafos b) y d) del Reglamento del Consejo Sectorial de Memoria Histórica como la rectificación de errores en los términos descritos en la parte expositiva

Donostian, 2017ko otsailaren 27an

Arantza Zabala
Giza Eskubideetako teknikaria

Imanol Tellería
Hezkuntzaren eta Gizarte Sustapenaren Zerbitzu burua

Juan Ramón Viles
Lehendakaritzako eta Gardentasuneko, Giza Baliabideetako eta Berrikuntzako zinegotzi ordezkaria”.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**

**AHO BATEZ.**

**UNANIMIDAD.**

--------------

**II**

**MOCIONES**

**II.1**

**MOZIO ARRUNTAK**

**5. Mozio arrunta, PP taldeak aurkeztua, Donostiako kaiko biltegietarako eraikinari buruzkoa.**

“Miren Albistur Garmendiak, Alderdi Popularreko bozeramaileak, indarrean dagoen Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluan oinarrituta, Donostiako kaiko biltegietarako eraikinari buruzko MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, osoko bilkuran jorra dadin.

JUSTIFIKAZIOA:

Alderdi Popularrak urteak daramatza portuko kaiko biltegietarako eraikina nola dagoen galdezka. Erabiltzaile ugarik eskatu zuten moduan, kortesiazko kaia berritzeko obrak egin ziren; orain, ordea, biltegietarako eraikina berritu behar da, jardueraz betetzeko eta beste erabilera batzuk emateko, gaur egun ez baita batere erabiltzen.

Iazko otsaileko Batzordearen bilkuran, gure taldeak auzi horren inguruan galdetu zion gobernu taldeari. Orduan, alkateak erantzun

**II**

**MOCIONES**

**II.1**

**MOCIONES ORDINARIAS**

**5. Moción ordinaria, presentada por el Grupo PP, sobre el edificio “portaaviones” del Muelle de San Sebastián.**

“Dña. Miren Albistur Garmendia, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCIÓN ORDINARIA sobre el edificio “portaaviones” del Muelle de San Sebastián.

JUSTIFICACION:

Desde el Grupo Popular llevamos años interesándonos por la situación en la que se encuentra el edificio conocido como “portaaviones”, ubicado en el muelle del Puerto. Una vez realizadas las obras para habilitar el muelle de cortesía, que venían reclamando numerosos usuarios, queda pendiente la rehalitación del portaaviones para dotarlo de actividad, darle nuevos usos, y superar el estado de infrautilización que dicha instalación presenta a día de hoy.

En la Comisión de febrero del año pasado, nuestro Grupo preguntó al Equipo de Gobierno por la cuestión. El Alcalde contestó, en aquella

zuen maiz bildu izan direla Eusko Jaurlaritzarekin kontu horri buruz hitz egiteko, eta ez zegoela behin betiko proiekturik baina kontuan hartu zela eraikinari erabilera mistoa emateko aukera, hau da, arrantzarekin lotutako tokiko produktuari balioa ematea eta erabilera turistiko batekin konbinatzea. Halaber, esan zuen bertako guneak berritu litezkeela tokiko produktua eraldatzeko eta merkataritza nahiz sukaldaritza jarduerak ezartzeko.

Ordutik (2016ko otsaila), ez dugu aurrerapen handirik nabaritu ekipamendu horri dagokionez. Aurtengo martxoan, hedabideek zabaldu zuten Eusko Jaurlaritzak biltegietarako eraikina birmoldatzeko lanen lizitazioa iragarri zuela, 1.570.572 euroan.

Alabaina, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuaren zirriborroak ez zekarren inolako partidarik ekipamendu horretarako (Jaurlaritza da erakunde eskuduna). Euskadiko Alderdi Popularrak Gasteizko Legebiltzarrean aurkeztu zuen zuzenketa bati esker, erkidegoko aurrekontuan 100.000 euroko partida bat sortu ahal izan da Donostiako Portuko eraikina berritu eta egokitzeko proiekturako, eraikin hori sustatze aldera.

Gure iritziz, beharrezkoa da gure hiriko ekipamendu horrekin zerbait egitea, urteak baitira batere erabiltzen ez dela; izan ere, eraikinak bultzada eta erabilera eman diezaieke (eta eman behar die) Donostiako itsasketari, turismoari eta arrantzari. Hori dela eta, behean izenpetzen duen bozeramaileak honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du:

Udalbatza Osoak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ahalik eta lasterrena aurkez diezazkiela bai donostiarrei bai Udal honetako talde politikoei Donostiako kaiko biltegietarako eraikina

ocasión, que se han reunido en muchas ocasiones con el Gobierno Vasco para tratar la cuestión. Que no había un proyecto definitivo pero que se contemplaba un uso mixto del edificio, poniendo en valor el producto local relacionado con la pesca y combinándolo con un uso turístico. Y que la idea podía ser la de habilitar espacios para la transformación del producto local, la comercializacióin y la restauración.

Desde entonces, (febrero de 2016) no hemos observado avances significativos en relación a este equipamiento. Los medios de comunicación se hicieron eco, en marzo de este año, de una noticia en la que el Gobierno Vasco anunciaba la licitación de la remodelación del edificio portaaviones por un importe de 1.570.572 euros.

Sin embargo, el borrador de Presupuesto del Gobierno Vasco (la institución competente) no contemplaba partida alguna para este equipamiento. Gracias a una enmienda del Grupo Poular Vasco en el Parlamento de Vitoria, se ha conseguido crear una partida de 100.000 euros en el Presupuesto autonómico para el proyecto de “reforma y adecuación del edificio del Puerto de San Sebastián”, con la idea de impulsar el mismo.

Entendemos necesaria la actuación en este equipamiento de nuestra ciudad, que lleva años en clara infrautilización, y que puede y debe dar un soporte y unos usos a la actividad náutica, turística y pesquera en San Sebastián, y es por lo que la portavoz que suscribe presenta la siguiente MOCION ORDINARIA:

El Ayuntamiento Pleno solicita al Gobierno Vasco que, a la mayor brevedad, presente a la sociedad donostiarra y a, los Grupos políticos de este Ayuntamiento, el proyecto previsto

berritzeko proiektua, aurreikusten diren erabilerak barne, eta proiektua gauzatzeko epeak.

para la rehabilitación del edificio “portaaviones” del Muelle donostiarra, incluyendo los usos previstos, así como los plazos de ejecución del proyecto.

Donostian, 2017ko maiatzaren 5ean

En San Sebastián, a 5 de Mayo de 2017

Miren Albistur Garmendia,
Alderdi Popularreko bozeramailea”.

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular”.

Eztabaida hasita, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Amaia Martin Garin andreak, Enrique Ramos Vispo jaunak, Alkate-Udalburuak eta Josu Ruiz Martin jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. José María Murguiondo Casal, Dª. Amaia Martín Garín, D. Enrique Ramos Vispo, Alcalde-Presidente y D. Josu Ruiz Martín, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**EH BILDU TALDEAK 5. GAIARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA AL ASUNTO N.º 5 PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 22 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 0**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 22 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 0**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

**5. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 5:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**HARTUTAKO ERABAKIAREN BEHIN BETIKO TESTUAREN EGIAZTAGIRIA:**

**CERTIFICADO DEL TEXTO DEFINITIVO DEL ACUERDO ADOPTADO:**

Donostiako Udalbatzak, bi mila eta hamazazpiko maiatzaren hogeita bostean egindako osoko bilkuran, PP taldeak Donostiako kaiko biltegietarako eraikinari buruz aurkeztutako mozio arrunta onartu zuen, EH Bildu taldeak egindako zuzenketa batekin. Zuzenketa horren bidez, ebazpen zatiari paragrafo bat gehitu zitzaion, eta hauxe izan da, beraz, azkenik onartutako testua:

Que el Excelentísimo Ayuntamiento Pleno en Sesión Ordinaria celebrada el día veinticinco de mayo de dos mil diecisiete, aprobó la siguiente Moción Ordinaria presentada por el Grupo PP sobre el edificio “portaaviones” del Muelle de San Sebastián, que incorpora una enmienda aprobada, presentada por el Grupo EH BILDU, de adición de un párrafo a la parte resolutiva, siendo el texto definitivamente aprobado el siguiente:

*“Alderdi Popularrak urteak daramatza portuko kaiko biltegietarako eraikina nola dagoen galdezka. Erabiltzaile ugarik eskatu zuten moduan, kortesiazko kaia berritzeko obrak egin ziren; orain, ordea, biltegietarako eraikina berritu behar da, jardueraz betetzeko eta beste erabilera batzuk emateko, gaur egun ez baita batere erabiltzen.*

*“Desde el Grupo Popular llevamos años interesándonos por la situación en la que se encuentra el edificio conocido como “portaaviones”, ubicado en el muelle del Puerto. Una vez realizadas las obras para habilitar el muelle de cortesía, que venían reclamando numerosos usuarios, queda pendiente la rehalitación del portaaviones para dotarlo de actividad, darle nuevos usos, y superar el estado de infrautilización que dicha instalación presenta a día de hoy.*

*Iazko otsaileko Batzordearen bilkuran, gure taldeak auzi horren inguruan galdetu zion gobernu taldeari. Orduan, alkateak erantzun zuen maiz bildu izan direla Eusko Jaurlaritzarekin kontu horri buruz hitz egiteko, eta ez zegoela behin betiko proiekturik baina kontuan hartu zela eraikinari erabilera mistoa emateko aukera, hau da, arrantzarekin lotutako tokiko produktuari balioa ematea eta erabilera turistiko batekin konbinatzea. Halaber, esan zuen bertako guneak berritu litezkeela tokiko produktua eraldatzeko eta merkataritza nahiz sukaldaritza jarduerak ezartzeko.*

*En la Comisión de febrero del año pasado, nuestro Grupo preguntó al Equipo de Gobierno por la cuestión. El Alcalde contestó, en aquella ocasión, que se han reunido en muchas ocasiones con el Gobierno Vasco para tratar la cuestión. Que no había un proyecto definitivo pero que se contemplaba un uso mixto del edificio, poniendo en valor el producto local relacionado con la pesca y combinándolo con un uso turístico. Y que la idea podía ser la de habilitar espacios para la transformación del producto local, la comercializacióin y la restauración.*

*Ordutik (2016ko otsaila), ez dugu aurrerapen handirik nabaritu ekipamendu horri dagokionez. Aurtengo martxoan, hedabideek zabaldu zuten Eusko Jaurlaritzak biltegietarako eraikina*

*Desde entonces, (febrero de 2016) no hemos observado avances significativos en relación a este equipamiento. Los medios de comunicación se hicieron eco, en marzo de este*

*birmoldatzeko lanen lizitazioa iragarri zuela, 1.570.572 euroan.*

*Alabaina, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuaren zirriborroak ez zekarren inolako partidarik ekipamendu horretarako (Jaurlaritza da erakunde eskuduna). Euskadiko Alderdi Popularrak Gasteizko Legebiltzarrean aurkeztu zuen zuzenketa bati esker, erkidegoko aurrekontuan 100.000 euroko partida bat sortu ahal izan da Donostiako Portuko eraikina berritu eta egokitzeko proiekturako, eraikin hori sustatze aldera.*

*Gure iritziz, beharrezkoa da gure hiriko ekipamendu horrekin zerbait egitea, urteak baitira batere erabiltzen ez dela; izan ere, eraikinak bultzada eta erabilera eman diezaieke (eta eman behar die) Donostiako itsasketari, turismoari eta arrantzari. Hori dela eta, behean izenpetzen duen bozeramaileak honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du:*

*Udalbatza Osoak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ahalik eta lasterrena aurkez diezazkiela bai donostiarrei bai Udal honetako talde politikoei Donostiako kaiko biltegietarako eraikina berritzeko proiektua, aurreikusten diren erabilerak barne, arrantzarako erabilera lehenetsiz, eta proiektua gauzatzeko epeak”. =====================================*

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Egiaztagiri hau egin, izenpetu eta zigilatu dut, Alkatetzak aginduta eta onetsita, Donostian, bi mila eta hamazazpiko maiatzaren 31ean.

*año, de una noticia en la que el Gobierno Vasco anunciaba la licitación de la remodelación del edificio portaaviones por un importe de 1.570.572 euros.*

*Sin embargo, el borrador de Presupuesto del Gobierno Vasco (la institución competente) no contemplaba partida alguna para este equipamiento. Gracias a una enmienda del Grupo Poular Vasco en el Parlamento de Vitoria, se ha conseguido crear una partida de 100.000 euros en el Presupuesto autonómico para el proyecto de “reforma y adecuación del edificio del Puerto de San Sebastián”, con la idea de impulsar el mismo.*

*Entendemos necesaria la actuación en este equipamiento de nuestra ciudad, que lleva años en clara infrautilización, y que puede y debe dar un soporte y unos usos a la actividad náutica, turística y pesquera en San Sebastián, y es por lo que la portavoz que suscribe presenta la siguiente MOCION ORDINARIA:*

*El Ayuntamiento Pleno solicita al Gobierno Vasco que, a la mayor brevedad, presente a la sociedad donostiarra y a, los Grupos políticos de este Ayuntamiento, el proyecto previsto para la rehabilitación del edificio “Portaaviones” del Muelle donostiarra, incluyendo los usos previstos, otorgando prioridad a los relacionados con la pesca, así como los plazos de ejecución del proyecto”. ===================================*

Y para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta Certificación, visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a treinta y uno de mayo de dos mil diecisiete.

ALKATEAK O. E. /

V. º B. º DEL ALCALDE,

Eneko Goia Laso”.

---------------

**6. Mozio arrunta bateratua, EH BILDU, PP eta IRABAZI DONOSTIA taldeek aurkeztua, garraio publikoko txartelei eta dBuseko txartelei buruzkoa.**

“EH BILDU udal taldearen bozeramaile Amaia Almirall Lopez de Luzuriagak, Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, eta IRABAZI Donostia udal taldearen bozeramaile Amaia Martín Garínek, Udal Arautegi Organikoaren indarreko 98. artikuluarekin bat etorriz, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten dute garraio publikoko txartelei eta dBuseko txartelei buruz.

JUSTIFIKAZIOA

BAT-BARIK-MUGI txartelen integrazio eta interoperabilitate Plan Maisuaren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko garraio publikoko hiru txartelak dBusen zerbitzu guztietan erabil daitezke 2017ko martxotik aurrera. Aukera hori aurrerapen kualitatiboa da sistema eta txartel bakarraren proiektuan; hala eta guztiz ere, apirilean tarifa berriak indarrean sartu zirenetik, desberdintasun ageria sortu da herritarrek zerbitzu berberen truke ordaintzen dituzten zenbatekoen artean: BAT eta BARIK txartelak darabiltzatenek 0,93 € ordaintzen dute bidaia bakoitzeko; MUGI anonimoa darabiltzatenek, hau da, lurralde honetako erabiltzaileek eta donostiarrek, ordea, 1,15 €-ko tarifa ordaintzen dute. Ia % 25 gehiago bidaia bakoitzeko, alegia.

dBusen 2016ko memoriaren arabera, ia 3,6

**6. Moción ordinaria conjunta, presentada por los Grupos EH BILDU, PP e IRABAZI DONOSTIA, sobre las tarjetas de transporte público y las tarifas de dBus.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, portavoz del grupo municipal EH BILDU, Miren Albistur Garmendia, portavoz del Grupo POPULAR, y Amaia Martín Garín, portavoz del grupo municipal IRABAZI Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presentan la siguiente MOCIÓN ORDINARIA sobre las tarjetas de transporte público y las tarifas de dBus.

JUSTIFICACIÓN

En ejecución del MasterPlan de integración e interoperatividad BAT-BARIK-MUGI, desde marzo de 2017 se pueden emplear las 3 tarjetas de transporte público de la Comunidad Vasca en el conjunto de servicios de dBus. Si bien, esta opción supone un avance cualitativo en el proyecto del sistema y billete único, desde la entrada en vigor en abril de las nuevas tarifas, se ha generado una situación de desigualdad manifiesta en cuanto a los importes que se aplica a la ciudadanía por los mismos servicios: mientras las personas usuarias que emplean las tarjetas BAT y BARIK abonan 0,93€ por viaje, las personas usuarias de la MUGI anónima, la propia del territorio y de la ciudadanía donostiarra, tienen que abonar una tarifa de 1,15€ . Casi un 25% más cara por cada viaje.

Tomando en cuenta que, según la memoria de

milioi bidaia MUGI anonimoarekin egin ziren; hortaz, baliteke desberdintasun egoera horrek Donostiako familia askori eragitea. Hori horrela, nabarmentzekoa da Donostiako familiek bi bider ordaintzen dituztela Tranbia Konpainiaren zerbitzuak: beren zergekin, Udalak Tranbia Konpainiari urtero egiten dion ekarpenaren bidez (2016an, 14.425.386 €); eta bidaia bakoitzeko tarifekin, zuzenean. Aitzitik, ez da onargarria, ezta zentzuzkoa ere, beste lurralde batzuetako erabiltzaileek baino tarifa garestiagoa ordaindu behar izatea, gainera.

dBus de 2016, 3,6 millones de viajes se realizaron con la MUGI anónima, hablamos de que esta situación de desigualdad puede afectar a una parte considerable de familias donostiarras. Ante esta realidad, resulta necesario resaltar que las familias donostiarras pagan 2 veces por los servicios de la Compañía del Tranvía: con sus impuestos mediante la aportación anual que realiza el Ayuntamiento a CTSS ( 14.425.386€ en 2016) y directamente con las tarifas por cada viaje. Lo que no es de recibo, ni de sentido común es que, además, deban abonar una tarifa más cara que las personas usuarias de otros territorios.

Hori dela eta, ulergarria da dBuseko gero eta ohiko erabiltzaile gehiago kexatzea eta egoera salatzea. Era berean, aipatzekoa da garraioaren plangintzaren eta mugikortasunaren ikuspegitik ere kaltegarria izan daitekeela, BAT eta BARIK txartelak Donostian saltzea, eskuratzea eta erabiltzea susta dezakeelako, lurralde honek berezkoa duen MUGI txartelaren kaltetan.

Por ello, es comprensible que cada vez más usuarias y usuarios habituales de dBus se estén quejando y denunciando esta situación. Así mismo, es importante señalar que incluso desde el punto de vista de la planificación de transporte y de movilidad, resulta perjudicial porque puede fomentar la venta, adquisición y uso de las tarjetas BAT y BARIK anónimas en Donostia, en detrimento de la MUGI, propia del territorio.

Horregatik guztiagatik, uste dugu gai honi Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan (GGLA) heldu behar zaiola, eta desberdintasun egoera bertan behera utziko duen proposamen bat adosteko lan egin behar dela. Horrenbestez, EH BILDU, Talde Popularra eta Irabazi Donostia udal taldeek honako mozio arrunt hau aurkezten dute:

Por todo lo expuesto, consideramos que en la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa (ATTG), institución competente en tarifas e integración, se debe abordar esta cuestión y trabajar por consensuar una propuesta que ponga fin a esta situación de desigualdad. Así, los grupos municipales EH BILDU, Grupo Popular y Irabazi Donostia, presentan la siguiente:

MOZIO ARRUNTA

MOCIÓN ORDINARIA

1.- Donostiako Udalbatza Osoak Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari (GGLA) proposamen bat prestatzeko eskatzen dio, ahalik eta eperik laburrenean eta adostasuna oinarri, MUGI txartel anonimoa erabiltzen duten Gipuzkoako herritarrek, oro har, eta

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/ San Sebastián solicita a la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa (ATTG) que, en el plazo más breve posible y desde el consenso, trabaje una propuesta para que la ciudadanía guipuzcoana, en general, y donostiarra, en

donostiarrek, bereziki, ez dezaten ordaindu BARIK eta BAT txartel anonimoak dituzten herritarrek baino tarifa garestiagoa dBuseko lineak erabiltzeko.

particular, que emplea la tarjeta anónima MUGI no siga abonando una tarifa más cara que la ciudadanía que posee las tarjetas anónimas BARIK y BAT, por utilizar las líneas de dBUS.

Donostian, 2017ko maiatzaren 5ean.

En Donostia/ San Sebastián, a 5 de mayo de 2017.

Amaia Martin Garin
Irabazi Donostia taldearen bozeramailea

Amaia Martin Garin
Portavoz del grupo Irabazi Donostia

Miren Albistur Garmendia
Talde Popularraren bozeramailea

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH BILDU taldearen bozeramailea".

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
Portavoz del grupo EH Bildu".

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Axier Jaka Goikoetxea jaunak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Loïc Alejandro, D. José María Murguiondo Casal, D. Axier Jaka Goikoetxea y Dª. Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**EAJ-PNV TALDEAK 6. GAIARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA AL ASUNTO N.º 6 PRESENTADA POR EL GRUPO EAJ-PNV:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**6. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 6:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**HARTUTAKO ERABAKIAREN BEHIN BETIKO TESTUAREN EGIAZTAGIRIA:**

Udalbatzak, bi mila eta hamazazpiko maiatzaren hogeita bostean izan zuen osoko bilera ohikoan, EH BILDU, PP eta IRABAZI DONOSTIA taldeek garraio publikoko txartelen eta Dbusen tarifen gainean elkarren artean aurkeztutako mozio arrunt hau onartu zuen, EAJ/PNV taldeak aurkeztutako zuzenketa bat ere eginda duena: erabaki zatia aldatzea. Horrenbestez, azkenean hauxe da onartutako testua:

*"BAT-BARIK-MUGI txartelen integrazio eta interoperabilitate Plan Maisuaren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko garraio publikoko hiru txartelak dBusen zerbitzu guztietan erabil daitezke 2017ko martxotik aurrera. Aukera hori aurrerapen kualitatiboa da sistema eta txartel bakarraren proiektuan; hala eta guztiz ere, apirilean tarifa berriak indarrean sartu zirenetik, desberdintasun ageria sortu da herritarrek zerbitzu berberen truke ordaintzen dituzten zenbatekoen artean: BAT eta BARIK txartelak darabiltzatenek 0,93 € ordaintzen dute bidaia bakoitzeko; MUGI anonimoa darabiltzatenek, hau da, lurralde honetako erabiltzaileek eta donostiarrek, ordea, 1,15 €-ko tarifa ordaintzen dute. Ia % 25 gehiago bidaia bakoitzeko, alegia.*

*dBusen 2016ko memoriaren arabera, ia 3,6 milioi bidaia MUGI anonimoarekin egin ziren; hortaz, baliteke desberdintasun egoera horrek Donostiako familia askori eragitea. Hori horrela, nabarmentzekoa da Donostiako familiek bi bider ordaintzen dituztela Tranbia Konpainiaren*

**CERTIFICADO DEL TEXTO DEFINITIVO DEL ACUERDO ADOPTADO:**

Que el Excelentísimo Ayuntamiento Pleno en Sesión Ordinaria celebrada el día veinticinco de mayo de dos mil diecisiete, aprobó la siguiente Moción Ordinaria conjunta presentada por los Grupos EH BILDU, PP e IRABAZI DONOSTIA sobre las tarjetas de transporte público y las tarifas de Dbus, que incorpora una enmienda aprobada, presentada por el Grupo EAJ/PNV, de modificación de la parte resolutiva, siendo el texto definitivamente aprobado el siguiente:

*"En ejecución del MasterPlan de integración e interoperatividad BAT-BARIK-MUGI, desde marzo de 2017 se pueden emplear las 3 tarjetas de transporte público de la Comunidad Vasca en el conjunto de servicios de dBus. Si bien, esta opción supone un avance cualitativo en el proyecto del sistema y billete único, desde la entrada en vigor en abril de las nuevas tarifas, se ha generado una situación de desigualdad manifiesta en cuanto a los importes que se aplica a la ciudadanía por los mismos servicios: mientras las personas usuarias que emplean las tarjetas BAT y BARIK abonan 0,93€ por viaje, las personas usuarias de la MUGI anónima, la propia del territorio y de la ciudadanía donostiarra, tienen que abonar una tarifa de 1,15€ . Casi un 25% más cara por cada viaje.*

*Tomando en cuenta que, según la memoria de dBus de 2016, 3,6 millones de viajes se realizaron con la MUGI anónima, hablamos de que esta situación de desigualdad puede afectar a una parte considerable de familias donostiarras. Ante esta realidad, resulta*

*zerbitzuak: beren zergekin, Udalak Tranbia Konpainiari urtero egiten dion ekarpenaren bidez (2016an, 14.425.386 €); eta bidaia bakoitzeko tarifekin, zuzenean. Aitzitik, ez da onargarria, ezta zentzuzkoa ere, beste lurralde batzuetako erabiltzaileek baino tarifa garestiagoa ordaindu behar izatea, gainera.*

*necesario resaltar que las familias donostiarras pagan 2 veces por los servicios de la Compañía del Tranvía: con sus impuestos mediante la aportación anual que realiza el Ayuntamiento a CTSS ( 14.425.386€ en 2016) y directamente con las tarifas por cada viaje. Lo que no es de recibo, ni de sentido común es que, además, deban abonar una tarifa más cara que las personas usuarias de otros territorios.*

*Hori dela eta, ulergarria da dBuseko gero eta ohiko erabiltzaile gehiago kexatzea eta egoera salatzea. Era berean, aipatzekoa da garraioaren plangintzaren eta mugikortasunaren ikuspegitik ere kaltegarria izan daitekeela, BAT eta BARIK txartelak Donostian saltzea, eskuratzea eta erabiltzea susta dezakeelako, lurralde honek berezkoa duen MUGI txartelaren kaltetan.*

*Por ello, es comprensible que cada vez más usuarias y usuarios habituales de dBus se estén quejando y denunciando esta situación. Así mismo, es importante señalar que incluso desde el punto de vista de la planificación de transporte y de movilidad, resulta perjudicial porque puede fomentar la venta, adquisición y uso de las tarjetas BAT y BARIK anónimas en Donostia, en detrimento de la MUGI, propia del territorio.*

*Horregatik guztiagatik, uste dugu gai honi Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan (GGLA) heldu behar zaiola, eta desberdintasun egoera bertan behera utziko duen proposamen bat adosteko lan egin behar dela. Horrenbestez, EH BILDU, Talde Popularra eta Irabazi Donostia udal taldeek honako mozio arrunt hau aurkezten dute:*

*Por todo lo expuesto, consideramos que en la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa (ATTG), institución competente en tarifas e integración, se debe abordar esta cuestión y trabajar por consensuar una propuesta que ponga fin a esta situación de desigualdad. Así, los grupos municipales EH BILDU, Grupo Popular y Irabazi Donostia, presentan la siguiente:*

*MOZIO ARRUNTA*

*1. Donostiako Udalbatzak Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari eskatzen dio proposamen bat lantzeko, ahalik eta eperik laburrenean eta adostasuna oinarri, haren bidez, Mugi txartel anonimoak darabilten pertsonek ez dezaten ordaindu Bat eta Barik txartelek darabiltenek baino tarifa handiagoa dBus autobusak erabiltzeagatik”. ===================================*

*MOCIÓN ORDINARIA*

*1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián solicita a la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa (ATTG) que, en el plazo más breve posible y desde el consenso, trabaje una propuesta para que quienes empleen la tarjeta anónima MUGI no abonen una tarifa más cara por utilizar las líneas de DBus que quienes utilicen las tarjetas BAT y BARIK”. ===========================*

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion

Y para que así conste y surta los efectos

ondorioak izan ditzan, Egiaztagiri hau egin, izenpetu eta zigilatu dut, Alkatetzak aginduta eta onetsita, Donostian, bi mila eta hamazazpiko maiatzaren 31ean.

procedentes, expido, firmo y sello esta Certificación, visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a treinta y uno de mayo de dos mil diecisiete.

ALKATEAK O. E. /
V. º B. º DEL ALCALDE,
Eneko Goia Laso".

---------------

**7. Mozio arrunta, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Gipuzkoako Foru Aldundiak Donostia izena errespetatzeari dagokiona.**

"Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH Bildu udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNTA aurkezten du, Gipuzkoako Foru Aldundiak Donostia izena errespetatzeari dagokiona, Udalbatzan azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA

2012ko abuztuaren 7an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak argitara eman zuen Donostiako udalerriaren izen ofizialaren aldaketa, halako erabakiari zegokion prozesuari amaiera emanez, eta bertan agertu bezala, harrez gero Donostia / San Sebastian da izen ofiziala.

Ugari dira hiriko izena daramaten dokumentu, agiri eta abarrak eta bada Udal Gobernuaren ardura, bere ardurapean diren idazki guztietan, hiriaren izena Udalbatzak aho batez onartu

**7. Moción ordinaria presentada por el Grupo EH BILDU para instar a la Diputación Foral de Gipuzkoa a que respete el nombre de Donostia.**

"Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, portavoz del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN ORDINARIA para instar a la Diputación Foral de Gipuzkoa a que respete el nombre Donostia, para su tratamiento en el Pleno Municipal.

JUSTIFICACIÓN

El 7 de agosto de 2012, el Boletín Oficial de Gipuzkoa notificó la modificación del nombre oficial del término municipal de Donostia, dando fin al proceso correspondiente a dicha decisión. Así pues, desde entonces el nombre oficial de la ciudad es Donostia / San Sebastián.

El nombre de la ciudad aparece en numerosos documentos, certificados y demás escritos oficiales, y es tarea del Gobierno Municipal asegurarse de que en todos ellos dicho

zuen bezala idatzita egon dadin ziurtatzea.

Hala ere, izenaren erabilera okerra ikusita, behin baino gehiagotan interpelatu dugu Udal Gobernua, bai eta iradokizunen bat egin ere. Udal Gobernuak aldekotasuna agertu arren, egoera nahasi duten laguntzaileak agertu dira bidean. Izan ere iaz Gipuzkoako Foru Aldundiak, azaldutakoaren arabera, aldebakartasunez, Gipuzkoako turismoari gipuzkoar izaera kentzea erabaki zuen, soilik hiriburuko izena erabiltzeko asmotan. Hiriburuko izena, haatik, soilik gazteleraz erabiltzeko hautua egin zuen, guztia ingelesarekin oker nahastuz. Ondorioz, Gipuzkoa herrialdea dena, Gipuzkoa region-edo bihurtu ondoren, San Sebastian region bezala kaleratzeko kanpaina zabala egin du. Izen aldaketaren operazioaren lehen fasea 15.000 euroko gastu inguru izan zen kontu foralean, bulego bikoizketa ulertezina alde batera utzita.

Bai Gipuzkoa, bai Donostia ezabatzeko hautu hau, turismo estrategiaren ikuspuntutik, Donostiarentzat hanka-sartzea izateaz gain, donostiar askorentzat mingarria izan da, gipuzkoar garen aldetik, Gipuzkoako hiriburua garen aldetik eta donostiar garen aldetik, Donostiari ez baitio bere euskarazko izena errespetatu eta Gipuzkoa ezabatu duelako.

Udalaren aldetik beste erakundeekin jorratu behar den gaia da gure hiriak dituen izenak behar bezala ezagutaraztea eta errespetatuak izango direla ziurtatzea. Halaber, Donostia hitzaren erabilera jorratzeko lan berezia egin behar da: euskarari zor zaion begirunea kontuan hartuta, Donostia hitzak hiriari mundu osoan ematen dion berezitasuna kontuan hartuta, gentilizioaren sortzailea den neurrian,

nombre figura escrito tal y como lo acordó por unanimidad el Pleno del Ayuntamiento.

Visto el uso incorrecto que se hace del nombre, hemos interpelado varias veces al Gobierno Municipal, y también hemos hecho alguna sugerencia. Aunque el Gobierno Municipal se ha mostrado de acuerdo, ciertas actuaciones externas han empeorado la situación. El año pasado, la Diputación Foral de Gipuzkoa, como hemos explicado y de forma unilateral, decidió eliminar el carácter guipuzcoano del turismo de Gipuzkoa, con la intención de utilizar solamente el nombre de la capital. Además, decidió utilizar solo su denominación castellana, y después mezcló ese nombre burdamente con el inglés. Así pues, convirtió la región de Gipuzkoa en “Gipuzkoa region”, y más tarde, lanzó una intensa campaña presentándola como “San Sebastian region”. En la primera fase de la operación de cambio de nombre se gastaron unos 15.000 euros de la cuenta foral, sin contar con la incomprensible duplicidad de oficinas.

Esta decisión de eliminar los nombres Gipuzkoa y Donostia, además de ser una metedura de pata para Donostia como estrategia turística, es hiriente para muchos donostiarras, porque somos guipuzcoanos, porque somos la capital de Gipuzkoa y porque somos donostiarras. No se ha respetado la denominación vasca de la capital, Donostia, y se ha eliminado el término Gipuzkoa.

El ayuntamiento debe trabajar con las demás instituciones para dar a conocer los nombres de nuestra ciudad tal y como son, y asegurar que se respetarán. Asimismo, debe hacer especial hincapié en que se utilice el término Donostia: por el respeto que se merece el euskera, por el carácter especial que confiere el nombre Donostia a la ciudad en el mundo entero, porque es el origen del gentilicio,

eta abar.

Bata bestearen ondoan kokatu ondoren, bi turismo bulegoen bikoizketa ulertezina suertatu zenean, instituzioen arteko akordioak erdietsi behar direla adostu zuen Donostiako Udalbatzak aho batez, zentzugabekeriak ez errepikatzeko. Informaziorako guneen auziaz gain, kanpainaren ikusmoldearen berrikuspena eskatzeko unea dela gero eta beharrezkoagoa da. Turismoari begirako kanpainaren ikuspuntutik argi baitago, Gipuzkoako turismoa bultzatu nahi izanez gero, "San Sebastian" erabilita fokua oker jarri dela, arreta ez baita herrialdean kokatzen ari, hiriburuan baizik. Gero eta argiago dago Gipuzkoako Foru Aldundiaren kanpainaren ikusmoldeak ez duela laguntzen helburuak lortzen, hori kaltegarria izanik, bai Gipuzkoari begira, bai Donostiari begira.

Aurrekoak kontuan hartuta, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin ahalegin berezia egin behar da egoera honi buelta emateko, zilegi da eskatzea bere erabakiak errebisatzeko, jakin dezaten zein den hiriburuko iritzia eta asmoa, gure herrialdeko agintariek, hiriko erabakiez jakitun, horren arabera jokatuko dutelakoan.

Horiek horrela, EH Bildu udal taldeak honako mozio arrunta aurkezten du

MOZIO ARRUNTA:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari errebisatzeko Gipuzkoako turismoa bultzatzeko kanpainan erabiltzen duen izenburua "San Sebastian Region" alda dezan, Gipuzkoa hitza erabiliz, egoki deritzon moduan.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen

etcétera.

Cuando, en una incomprensible duplicidad, se colocaron dos oficinas de turismo una junto a la otra, el Pleno de Donostia / San Sebastián decidió por unanimidad que se deben conseguir acuerdos interinstitucionales para evitar que ser repitan semejantes insensateces. Dejando de lado el asunto de los puntos de información, se hace cada vez más necesario exigir que se revise el enfoque de la campaña. Es evidente que, si el objetivo es fomentar el turismo en Gipuzkoa, se han equivocado al elegir la palabra San Sebastian, porque la campaña centra así su atención no en la región de Gipuzkoa, sino en la capital. Está cada vez más claro que el enfoque de la Diputación Foral de Gipuzkoa no ayuda a lograr los objetivos, lo que perjudica tanto a Gipuzkoa como a Donostia.

En vista de todo lo anterior, hay que hacer un esfuerzo especial con la Diputación Foral de Gipuzkoa para dar la vuelta a esa situación. Es lícito exigirle que revise sus decisiones, para que sepan de la opinión y las intenciones de la capital. Esperamos que las autoridades de nuestra región, conscientes de las decisiones tomadas en la ciudad, actúen en consecuencia.

Por todo ello, el grupo municipal EH Bildu presenta la siguiente moción ordinaria

MOCIÓN ORDINARIA:

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa a que revise el lema de la campaña de fomento del turismo en Gipuzkoa "San Sebastian Region", y a que utilice en su lugar la palabra Gipuzkoa, de la manera que estime oportuna.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia /

dio Gipuzkoako Foru Aldundiari aurrerantzean hiriburuko izena erabiltzerakoan Donostia hitzari zor zaion errespetua kontuan har dezan eta bere erabilera bultza dezan.

Donostian, 2017ko maiatzaren 15ean

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
EH Bildu udal taldeko bozeramailea".

San Sebastián insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa a que, en lo sucesivo, muestre el respeto que se merece a la palabra Donostia y fomente el uso de dicho término al referirse a la capital.

Donostia / San Sebastián, 15 mayo de 2017

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
portavoz del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Miren Albistur Garmendia andreak, Maria Luisa Garcia Gurruchaga andreak eta Amaia Martin Garin andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las señoras Dª. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, Dª. Miren Albistur Garmendia, Dª. María Luisa García Gurruchaga y Dª. Amaia Martín Garín, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**8. Mozio arrunta, EAJ-PNV, PSE-EE, EH BILDU, PP eta IRABAZI DONOSTIA taldeek aurkeztua, Zubietako Eskola Txikian lehen hezkuntzako ziklo osoa ezartzeari buruzkoa.**

"Miren Azkarate Villar EAJ/PNV udal taldeko bozeramaileak, Ernesto Gasco Gonzalo Donostiako Sozialistak/Socialistas Donostiarras udal taldeko bozeramaileak,

**8. Moción ordinaria, presentada por los Grupos EAJ-PNV, PSE-EE, EH BILDU, PP e IRABAZI DONOSTIA, sobre la ampliación a toda la etapa de Educación Primaria del Colegio Público Zubieta.**

"Miren Azkarate Villar portavoz del grupo municipal EAJ/PNV, Ernesto Gasco Gonzalo portavoz del grupo municipal Socialistas Donostiarras, Amaia Almirall López de

Amaia Almirall López EH Bildu udal taldeko bozeramaileak, Miren Albistur Garmendia udal talde Popularreko bozeramaileak eta Amaia Martin Garin, Irabazi Donostia, udal taldeko bozeramaileek, indarrean dagoen Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluan oinarrituta, ondoko MOZIOA aurkezten dute, Zubieta Eskola Txikian Lehen Hezkuntzako etapa osorik ezartzeari buruzkoa.

Luzuriaga portavoz del grupo municipal EH Bildu, Miren Albistur Garmendia portavoz del grupo Popular y Amaia Martin Garin, portavoz del grupo municipal Irabazi Donostia, al amparo del artículo 98 del reglamento orgánico del Pleno, presentan la siguiente MOCIÖN, relativa a la ampliación a toda la etapa de Educación Primaria del Colegio Público Zubieta.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACIÓN

Eusko Alderdi Jeltzalea /Partido Nacionalista Vasco, Donostiako Sozialistak/Socialistas Donostiarras, EH Bildu, Partido Popular eta Irabazi Donostia udal talde politikoek bat egiten dugu gure hirian hezkuntza-eskaintza publikoa sustatzeko helburuarekin, eta, horretarako, hezkuntza-komunitatearen eskaera eta kezkei erantzungo dieten politikak bultzatzearekin.

Los grupos políticos municipales Eusko Alderdi Jeltzalea /Partido Nacionalista Vasco y Donostiako Sozialistak/Socialistas Donostiarras, EH Bildu, Partido Popular e Irabazi Donostia compartimos como objetivo la defensa de la oferta educativa pública de nuestra ciudad, promoviendo a tal fin políticas que den respuesta a las fundamentadas demandas y preocupaciones de nuestra comunidad educativa.

Ildo horretan, bilera bat baino gehiago izan dugu Zubieta auzoko Eskola Txikiko ordezkariekin, guraso zein irakasle, bai eta bertako Herri Batzarreko Lehendakariarekin ere. Eskola Txikiaren hezkuntza-proiektuaren berri ere izan dugu eta gaurko eskaintza Lehen Hezkuntza osora zabaltzeko eskaria ere jaso dugu.

En ese sentido, los grupos políticos municipales hemos mantenido varias reuniones desde el gobierno municipal con los representantes de la comunidad educativa del CP Zubieta del barrio de Zubieta de nuestra ciudad, para conocer el proyecto educativo del centro y su posible ampliación a toda la etapa Primaria.

Udal talde politikook badakigu, halaber, garrantzitsua dela Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin batera lanean jardutea eta Donostiako ikastetxeen beharrak ere elkarrekin aztertzea, guztion artean erantzun ahal izateko behar horiei, hiritarrei kalitatezko hezkuntza-zerbitzua emanaz.

Los grupos políticos municipales somos conscientes, asimismo, de la importancia de trabajar en cooperación con el Departamento de Educación del Gobierno Vasco, para analizar las necesidades de los centros educativos donostiarras y, entre todos, responder a las mismas ofreciendo un servicio educativo de calidad para toda la ciudadanía.

Zubietako Eskola Publikoaren hezkuntza-proiektua, Eskola Txikien proiektuan kokatzen da, ongi frogatutako kalitatea duen hezkuntza-proiektuan, hain zuzen ere: proiektutako

El proyecto educativo de la Zubieta Eskola Publikoa se enmarca en el proyecto de las Eskola Txikiak caracterizado por su calidad educativa contrastada y la pedagogía por

pedagogia, berezkoa ezaugarri duena adin bateko eta besteko ikasleak elkarrekin jardutea, horixe izanik Eskola Txikien metodologiaren zutabeetako bat, berdinen arteko ikaskuntza prozesua. Orain arte proiektu hori Lehen Hezkuntzako bigarren ikasturtera arte bakarrik garatu da, gaurko plangintzak ez baitu aurreikusten Zubietan bertan etapa amaitzea. Beraz, ondoren Lasarte-Oriako eta Usurbilgo ikastetxeetara bideratzen dituzte ikasleak. Kontuan izan behar da, gainera, Usurbilen ez dagoela hezkuntza-eskaintza publikorik eta Lasarten nahiko saturatuak daudela ikastetxe publikoak.

proyectos y haciendo de la mezcla de edades inherente a su situación uno de sus pilares metodológicos basados en el aprendizaje entre iguales. En este momento dicho proyecto educativo solo ha podido ser desarrollado hasta el segundo curso de Educación Primaria ya que la planificación de la oferta educativa del barrio de Zubieta no contempla la finalización de la etapa en el barrio y el alumnado es orientado hacia los centros educativos de Lasarte-Oria y de Usurbil, con el agravante de que en Usurbil no existe oferta educativa pública y en Lasarte la existente está bastante saturada.

Eusko Legebiltzarrak Legez besteko Proposamena onartu zuen 2010eko ekainean Zubietako Eskolako eskaintza zabaltzeari eta hobetzeari buruzkoa. Zehazki, Hezkuntza Batzordean onartu zen akordioa, legebiltzarreko talde guztien babesa izan zuena. Hartara, Donostiako Udaleko Hezkuntza atalak bere gain hartu zituen eskola handitu eta egokitzeko obrak.

El Parlamento Vasco aprobó en junio del 2010 una Proposición no de Ley relativa a la ampliación y mejora de Zubieta Eskola en un acuerdo adoptado por la Comisión de Educación por todos los grupos del arco parlamentario, y así se acometieron las obras de ampliación y acondicionamiento de la escuela realizadas a cargo del Departamneto de Educación y del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián.

Gaur, 2014/15 ikasturtean obrak amaituak egon arren, ez da oraindik Lehen Hezkuntza osora zabaldu Zubietako Eskolaren eskaintza. Eskolan badago lekua, baina 8 urteko haurrek beren auzoa utzi behar dute beste udalerri batzuetan jarraitzeko beren ikas ibilbidea, Zubietan bertan eskain zitekeena. .

A día de hoy y con las obras terminadas desde el curso 2014/15 nos encontramos con que dicha ampliación a toda la etapa Primaria no se ha realizado dándose la situación de que a pesar de haber sitio en la escuela el alumnado con 8 años debe abandonar su barrio para seguir un itinerario educativo en otros municipios cuando podría ofrecerse en Zubieta.

Bidezkoa da, beraz, Zubieta auzoko hezkuntza-komunitatearen nahia, ikasleek Haur eta Lehen Hezkuntzako etapak osorik beren auzoan egin ahal izatekoa.

La aspiración legítima de la comunidad educativa del barrio de Zubieta es pues lograr que el alumnado pueda cursar las etapas de Educación Infantil y Primaria en su integralidad en el barrio.

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen duten zinegotzien honako MOZIO ARRUNTA aurkezten dute:

Por todas estas razones arriba expuestas los concejales que suscriben presentan la siguiente MOCIÓN ORDINARIA:

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Hezkuntza Sailari har ditzala beharrezkoak diren neurriak Lehen Hezkuntzako etapa osoa progresiboki ezartzeko Zubieta Eskola Publikoan, Eusko Legebiltzarraren 2010/123 Legez besteko Proposamena betetze aldera.

2. Donostiako Udalbatzak, 2016/17 ikasturteko garai honetan dagoeneko 2017/18 ikasturteko plangintza oso aurreratua dagoela jabetzen den arren, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eskatzen dio sakonki azter dezala zabalkunde horren lehenengo fasea 2017/18rako egitearen bideragarritasuna.

Donostia / San Sebastián 2017ko maiatzaren 17a

Miren Azkarate Villar
EAJ/PNV

Ernesto Gasco Gonzalo
Socialistas donostiarras/Donostiako sozialistak

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu

Miren Albistur Garmendia
PP

Amaia Martin Garin
Irabazi Donostia".

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al Departamento de Educación que tome las medidas oportunas para implantar de modo progresivo toda la etapa de Educación Primaria en el CP Zubieta en cumplimiento de la Proposición no de ley 123/2010 del Parlamento Vasco.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián, consciente de que a estas alturas del curso 2016-17 la planificación escolar de cara el curso 2017-18 se encuentra en un estado muy avanzado, solicita al Departamento de Educación del Gobierno Vasco que estudie seriamente la posibilidad de realizar la primera fase de dicha implantación el curso 2017-18.

Donostia / San Sebastián a 17 de mayo de 2017

Miren Azkarate Villar

Ernesto Gasco Gonzalo
EAJ/PNV Socialistas donostiarras/Donostiako sozialistak

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu

Miren Albistur Garmendia
PP

Amaia Martin Garin
Irabazi Donostia".

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

II.2

KONTROL MOZIOAK

II.2

MOCIONES DE CONTROL

---------------

1. ETA 26. KONTROL MOZIOAK BATERA AZTERTU DIRA. /

SE TRATAN DE FORMA CONJUNTA LAS MOCIONES DE CONTROL N.º 1 Y N.º 26.

---------------

**II.2.1. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak aurkeztua, Lourdes Txikin zuhaitzak moztu eta gero hartu beharreko neurriei buruzkoa.**

“Irabazi Donostia udal taldeko Loïc Alejandro zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa hilabete honetako Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean bideratutako interpelazioaren ondorioa da, eta Lourdes Txikin moztutako zuhaitzei dagokie, hirigintzaren ikuspuntutik.

JUSTIFIKAZIOA

Lourdes Txiki zonaldean hainbat zuhaitz moztu dira. Pagola enpresak txosten bat idatzi zuen Ekintza ikastetxearen aldameneko lursailaren ezaugarriek eta zuhaitzek suposa ditzaketen arriskuak aztertzeko asmoz, eta txosten horren ondorioetan oinarrituta moztu dira zuhaitzak.

Zinegotzi ordezkariak ebatzi zuenez, lursailaren jabeak 50 metroko zerrenda batean zuhaitzak kentzeko ardura du, baita gunea egonkortzeko lanak egitearena ere. Hala ere, ebazpen hori

**II.2.1. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre medidas a adoptar después de la tala de árboles en Lourdes Txiki.**

“Loïc Alejandro, Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio del presente mes, en relación con la tala de árboles en Lourdes Txiki desde el punto de vista del urbanismo.

JUSTIFICACIÓN

Se ha llevado a cabo una tala de arboles en la zona de Lourdes Txiki. Esa tala encuentra su origen en las conclusiones de un informe de la empresa Pagola analizando los riesgos potenciales, para el Centro Escolar Ekintza, que representan las características y el arbolado de la parcela colindante al centro educativo.

Una resolución del Concejal Delegado insta a la propiedad de la parcela a retirar los árboles en una franja de 50m y a realizar labores de estabilización del terreno. Posteriormente se limitó el alcance de

zuhaitzak moztean soilik aplikatu da, eta ez dugu egonkortzeko egin behar diren lanen inguruko berririk izan.

esa resolución solamente a la tala de árboles. Pero no sabemos nada más de los trabajos de estabilización necesarios.

Gainera, zuhaitzak mozterako orduan, lana egin duen enpresak 50 metroko zerrenda horretara iristeko bide berriak zabaldu ditu eta, horrenbestez, bidean zeuden hainbat zuhaitz moztu ditu; zuhaitz horiek ez zuten arriskurik ekartzen Hiria Antolatzeko Plan Orokorrean babes berezia behar duen landa eremu gisa katalogatutako lursail horretan.

Para realizar la tala, la empresa ejecutante ha abierto caminos para tener acceso a la dicha franja de 50m, cortando numerosos árboles que no representaban ningún peligro en esa parcela catalogada en el Plan General de Ordenación urbana como zona rural de protección especial.

Espedientean, bi dokumentu iruditu zaizkigu bereziki deigarriak:

En el expediente dos documentos han llamado nuestra atención:

Udaltzaingoaren txostenak lanak egiteko baimenik ez zegoela adierazten du.

En su informe, la Guardia Municipal comenta que no consta permiso para la realización de los trabajos.

Apirilaren 27ko txostenean, honako hau idatzi zuen Obra Zibil eta Azpiegitura Zerbitzuko buruak: “legezkotasun urbanistikoa lehengoratzeko agin zitezkeen neurri konpentsatzaileei dagokienez, nire ustez, alderdi hau zehaztu beharko litzateke. Esate baterako, bideak egiteaz, edo 50 metro horietatik kanpo zuhaitzak mozteaz ari garenean, ea edozein zuhaitz mota izango litzatekeen zehaztu beharko litzateke, eta ea horiek moztea beharrezkoa izango litzatekeen ala ez. Edonola ere, alderdi horiek erabakitzeko, gai horretan aditua den teknikari baten aholkularitza beharko litzateke”. Zinegotzi ordezkariaren 2017ko apirilaren 28ko ebazpenean, ordea, txosten horri erreferentzia egitean, ez da neurri konpentsatzaileen inguruko ikerketarik aipatzen.

En su informe del 27 de abril, el Jefe de Servicio de Obra Civil e Infraestructuras escribe: “respecto a las medidas compensatorias que se pudieran ordenar para restablecer la legalidad urbanística, considero, que debería precisarse este aspecto. Por ejemplo si se refiere a la ejecución de las pistas, o a la tala de ejemplares fuera de esos 50 metros, debería precisarse si se trata de cualquier tipo de ejemplar y de si su tala era o no necesaria. En cualquier caso para valorar esos aspectos debería contarse con la asesoría de un técnico especialista en la materia”. Sin embargo, en la resolución resultante del 28 de abril 2017, del Concejal Delegado, y que hace referencia a ese informe, no se menciona el necesario estudio de medidas compensatorias.

Batzordean galdetu genuen ea zergatik izan zen arestian aipatutako Pagolaren ikerketa espedientea ireki zuena. Hirigintza zuzendariordeak erantzun zigunez, Udalak enpresa horrekin lan egin ohi du eta, hala, Udaleko teknikariek ontzat eman zuten enpresaren proposamena.

Preguntamos en comisión por qué razón el informe que inicia el expediente es el mencionado estudio de Pagola. El Subdirector de Urbanismo nos contestó que el Ayuntamiento suele trabajar con esta empresa y que los técnicos del Ayuntamiento consideraron válidas su propuesta.

Hala eta guztiz ere, esperientziak erakutsi duenez, proposamen hura ez zen osoa, behinik behin: aurrez definitutako 50 metroko zerrenda horretan mozketa egiteko zehaztapena edota aurreikuspena falta izan zirenez, orain hegala are ezegonkorragoa da.

No obstante, la experiencia ha demostrado que la propuesta no era, cuanto menos, completa: por falta de concreción y/o de previsión en la forma de realizar la tala en la franja de 50m definida, nos encontramos ahora con una ladera todavía menos estable.

Bestalde, lanak egiteko baimenik ez zegoela adierazia zuen Udaltzaingoak, eta batzordean galdetu genuen ea horrek zehapen espediente bat irekitzeko bidea emango zuen. Zinegotzi ordezkariaren esanetan, lanak gelditu egin ziren, teknikari bat lursailaren egoera ikustera joan zen eta bideak zabaltzea beharrezkoa zela ebatzi zuen.

También preguntamos si el hecho de que la Guardia Municipal haya determinado que la actuación carecía de autorización iba a dar lugar a un expediente sancionador. A eso el Concejal Delegado contestó que se paralizaron las obras, que un técnico fue a ver in situ el estado de la parcela, y que este consideró que la apertura de pistas fue necesaria.

Edonola ere, hori ez dator bat hirigintza zuzendariordeak esandakoarekin: orain dela 20 urte inguru antzerako lanak egin ziren, baina ikastetxearen lursailetik garabiak erabiliz. Horrek esan nahi du badaudela arriskutsuak izan daitezkeen zuhaitzak bide berririk ireki gabe mozteko irtenbide teknikoak eta, beraz, babestutako baso batean bestelako zuhaitzak moztu behar ez izateko moduak.

Esto contrasta con lo que comentó el Subdirector de Urbanismo: hace unos 20 años se realizaron trabajos del mismo tipo, pero con grúas y desde la parcela del colegio. Esto indica que existen soluciones técnicas para tala los arboles que representan un peligro sin abrir pistas y consecuentemente sin talar otros arboles en un bosque protegido.

Batzordean, Zinegotzi ordezkariak azpimarratu zuen ikastetxeko haurren segurtasunak duela lehentasuna, zuhaitzak babestearen aurretik. Gu diagnostiko horrekin bat gatoz, eta ez dugu egindakoa zalantzan jartzen, hori egiteko modua baizik.

En comisión, el Concejal Delegado hizo énfasis sobre la prioridad de la seguridad de los y las niñas del colegio frente a la protección de los árboles. Compartimos ese diagnóstico y no cuestionamos lo que se decidió hacer, sino cómo se hizo.

Beste alde batetik, Zinegotzi ordezkariak lana premiazkoa zelakoan justifikatu zuen. 2016ko apirilaren 13az geroztik ezagutzen zuen Pagolaren txostena; gai hau egiaz horren premiazkoa izan balitz, ez zukeen urtebete iragaten utziko lanak egiten hasi aurretik.

Del mismo modo, el Concejal Delegado justificó la actuación por su carácter urgente. El Concejal Delegado tenía conocimiento del informe de Pagola desde el 13 de abril 2016. Si el asunto tenía tanta urgencia no se habría dejado pasar un año antes de actuar.

Are gehiago, lanak egiteko agindua 2016ko urrian sinatu zuen Zinegotzi ordezkariak eta, beranduago, otsailean, Ekintza ikastetxeak zuhaitzak apirilean mozteko eskatu zuen. Hau

Es más, la orden de ejecución está firmada por el Concejal Delegado en octubre de 2016, y posteriormente el colegio Ekintza pidió en febrero que se realizara la tala en abril. Si el propio colegio

da, ikastetxeak berak eskatu baldin bazuen mozketa beranduago egiteko, zaila egiten da lan hori premiazkoa zela esatea.

pide aplazar el comienzo de la tala, difícilmente podremos hablar de urgencia.

Hortaz, denbora nahikoa egon da zuhaitzak mozteko modua, aukerak eta horren ondorioak ikertzeko.

Por lo tanto, había más que tiempo suficiente para estudiar el modus operandi, sus implicaciones y sus alternativas.

Horregatik guztiarengatik aurkezten dugu ondorengo

Por todo lo anteriormente expuesto, presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal Gobernuari, Ingurumen Sailarekin eta lursailaren jabearekin batera, behin betiko irtenbide bat adosteko Ekintza ikastetxearen aldameneko hegala egonkortzeko, haurren segurtasuna bermatze aldera, eta betiere kontuan izanda aipatutako lursaila babestuta dagoela.

1. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que consensúe, conjuntamente con el Departamento de Medio Ambiente y la propiedad, una solución definitiva para la estabilización de la ladera colindante con el Colegio Ekintza con el fin de garantizar la seguridad de las niñas y niños, siempre teniendo en cuenta que la parcela afectada está protegida.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal Gobernuari, Ingurumen Sailarekin elkarlanean, konpentsatzeko neurriak zehazteko Obra Zibil eta Azpiegitura Zerbitzuko buruaren txostenean gomendatutakoa kontuan hartuz, lursaila bertako espezieekin basoa berritzeko helburuarekin.

2. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que concrete, en colaboración con el Departamento de medio Ambiente, medidas compensatorias tal y como se recomienda en el informe del Jefe de Servicio de Obra Civil e Infraestructuras, con el fin de repoblar la parcela con especies autóctonas.

3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal Gobernuari zorrotz eta gogor jokatzeko balizko zigor bat ezartzea kontuan hartzerako orduan; balizko isuna eredugarria izan dadila eta, behinik behin, moztutako egurraren balioa baino nabarmen altuagoa.

3. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a ser riguroso y severo a la hora de valorar la aplicación de una eventual sanción, y que la eventual multa resultante sea ejemplarizante y cuanto menos, claramente superior al valor de la madera extraída.

4. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal Gobernuari lursailaren babes maila osorik mantentzeko.

4. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a mantener el nivel de protección de la parcela en su totalidad.

Donostia, 2017ko maiatzaren 19a

Donostia a 19 de mayo de 2017

Izpta.: Loïc Alejandro,

Fdo. Loïc Alejandro

Irabazi Donostia taldeko zinegotzia".

**II.2.26. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Lourdes Txikiko zuhaizti babestua dela eta.**

"Axier Jaka Goikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko maiatzaren 15ean, Hirigintzako Batzordean aztertutako "Lourdes Txikiko zuhaizti babestua" interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Ekintza ikastolak hala eskatuta, Udaleko Hirigintza Departamenduak eskola luiziez eta erorketez babesteko neurriak betetzeko exekuzio-agindua eman zion gaineko magaleko lur-jabeari. Udal-aginduak soilik eskolaren 50m-ko perimetroan segurtasunerako baso-mozketa egiteko agindua edo baimena ematen zuen arren, lur-jabeak ikastola gaineko zuhaiztian arraseko mozketa egin zuen Aste Santuko opor egunetan, eta bi hektarea baso inguru baino gehiago suntsitu zituen mozketan.

Zentzu horretan, lur-jabeak Udalaren aginduak esandakoa ez betetzeaz gain, argitu behar da Plan Orokorrak babestutako zuhaiztia dela. Alta, Haritzalde eta Eguzki ingurumen-elkarteek -biak ala biak Ingurumen Kontseilu Sektorialean parte hartzen dutenak- eskatu zieten Ingurumen Fiskaltzari eta Donostiako Udalari zuhaitz mozketa honen inguruko ikerketa abiatzea.

Maiatzaren 15eko batzordeetan, Udal-

Concejal del Grupo Irabazi Donostia".

**II.2.26. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU sobre la ladera de Lourdes Txiki.**

"Axier Jaka Goikoetxea, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación denominada "Arboleda protegida de Lourdes Txiki", tratada en la Comisión de Urbanismo el 15 de mayo de 2017.

JUSTIFICACIÓN

A solicitud de la ikastola Ekintza, el Departamento de Urbanismo del Ayuntamiento dio a la persona propietaria del terreno de la ladera que se encuentra situada detrás de este centro una orden de ejecución, para que adoptara medidas para la protección de la escuela frente a corrimientos y desprendimientos. Pese a que la orden municipal sólo ordenaba, o sólo autorizaba, la tala de árboles, por motivos de seguridad, en un perímetro de 50 m alrededor de la escuela, la propiedad del terreno, durante las vacaciones de Semana Santa, practicó una tala a mata rasa del arbolado situado por encima la escuela, llegando a devastar unas dos hectáreas de bosque.

Además de que la persona propietaria no cumplió la orden del Ayuntamiento, hay que señalar que la arboleda en la que se realizó la tala se encuentra protegida por el Plan General. Las asociaciones medioambientales Haritzalde y Eguzki, ambas participantes en el Consejo Sectorial de Medio Ambiente, solicitaron a la Fiscalía de Medio Ambiente y al Ayuntamiento de San Sebastián que pusieran en marcha una investigación sobre la citada tala.

En las comisiones del 15 de mayo, preguntado el

gobernuari gaiaz galdetuta, erantzun zitzaigun erorketa eta luizien segurtasun-arriskuagatik egin zela esku-hartzea. Hala ere, ikastola atzeko magala behin betiko egonkortzeko neurriez galdetuta (buloiak, saretzea...), Udal-gobernutik ezin izan zitzaigun inolako pauso edo neurri zehatzen berri eman. Bestalde, babestutako zuhaiztia izatearen inguruan erantzun zitzaigun, mozketaren arrazoia segurtasuna izaki, ez zela Foru Aldundiaren txostenaren beharrik izan eta baso-zabalera handiagoa moztearen arrazoia izan zela pistak ireki izana. Horrekin batera, adierazi zitzaigun moztutako zuhaitz gehienak gazteak zirela eta ez eite handikoak. Soilik amaieran aipatu zitzaigun Hirigintza Departamenduak informazio-espedientea irekiko zuela, ikertzeko ea arau-hausterik izan zen.

Gobierno municipal por el tema, se nos respondió que la intervención se llevó a cabo para garantizar la seguridad, ante el riesgo de corrimientos y desprendimientos. Preguntado por la adopción de medidas para estabilizar de manera definitiva la ladera que hay detrás de la ikastola (bulones, redes…), el Gobierno municipal no pudo darnos a conocer ningún paso que se haya dado ni ninguna medida concreta que se haya adoptado. Por otro lado, cuando preguntamos sobre el hecho de que el arbolado en cuestión fuera un arbolado protegido, se nos respondió que, al ser la seguridad la razón de la tala, no era necesario contar con el informe de la Diputación Foral, y que se taló una zona mayor de la inicialmente autorizada porque se abrieron pistas. Además, según se nos manifestó, la mayoría de los árboles talados eran jóvenes y no de gran porte. Solamente al final se comentó que el Departamento de Urbanismo abriría un expediente informativo, para determinar si se había cometido alguna infracción.

Azalpen soil honek harridura sortzeaz gain, are gehiago kezkatu gaitu. Lehenik, eta batik bat, Ekintza ikastolako umeen segurtasunari dagokionez: exekuzio-agindua apirilaren 23an amaitzen zen arren, hondeamakinekin egindako mozketa-lanek ondorengo eskola-egunetan ere jarraitu omen zutelako. Eta horrez gain, arraseko mozketaren ondoren eskolaren segurtasun egoera okertu egin delako; izan ere, hasieran esku-hartzearen helburua segurtasuna bermatzea bazen ere, zuhaitz-mozketa erraldoi honen ondoren magalaren egonkortasun egoera okertu omen delako, babesgabetza eta higadura-aukera handitu izanagatik, batzordean bertan arduradun teknikoak aitortu zuen bezala.

Esta explicación tan simple nos ha sorprendido y, lo que es más grave, nos ha preocupado. En primer lugar, y sobre todo, por lo que se refiere a la seguridad de las niñas y niños de la ikastola Ekintza. En efecto, aunque el plazo fijado en la orden de ejecución finalizaba el 23 de abril, según hemos sabido las excavadoras continuaron con la tala los días siguientes, aunque se trataba de días lectivos. Y nos preocupa también el hecho de que, después de esa tala a mata rasa, la seguridad de la escuela ha empeorado. En efecto, aunque en un principio el objetivo de la intervención era garantizar la seguridad, parece que, después de esa tala masiva, la ladera es menos estable, porque está más desprotegida y la probabilidad de erosión ha aumentado, tal como la persona técnica responsable reconoció en la propia comisión.

Bigarrenik, kezka Udal-gobernuak ez zuelako adierazi espresuki jakinaren gainean zegoenik Lourdes Txikiko zuhaiztia Donostiako 2010eko

En segundo lugar, estamos preocupados porque el Gobierno municipal no manifestó expresamente que tenía conocimiento de que el arbolado de

Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak babestutako eremua dela, “Landareri Interesduneko Habitat” (C.1d) bezala. Horrez gain, Udal-gobernuko ordezkariak justifikatu nahi izan zuen 50 m-ko hegalaz gain, eta baimenik izan ez arren, lur jabeak zuhaitz gehiago moztu izana.

2. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que se repongan, en el espacio público, todos los árboles que fueron o serán talados por motivos de seguridad, enfermedad o de mal estado, con la misma especie si se trata de una especie autóctona, o, alternativamente, con otra especie autóctona.

3. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que utilice fórmulas consensuadas con el Departamento de Medio Ambiente, cuando existen, que compatibilizan la presencia de arbolado con otras necesidades (jardinería u otras).

4. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que elabore y presente un Plan sobre el arbolado en la ciudad para dar a conocer a la ciudadanía

nahi duen zuhaitzen presentzia gure hiri ingurunean.

cómo el Ayuntamiento piensa potenciar la presencia de árboles en nuestro entorno urbano.

5. Hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari herritarrei eta udal taldeei adierazteko Donostian moztutako zuhaitzen egurra zertan erabiltzen den.

5. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que informe a la ciudadanía y a los grupos municipales sobre el destino de la madera de los árboles talados en la ciudad.

Donostian, 2017ko maiatzaren 19an

Donostia a 19 de mayo de 2017

Sinatua: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia".

Fdo. Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Axier Jaka Goikoetxea jaunak eta Miguel Angel Diez Bustos jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Loïc Alejandro, D. Axier Jaka Goikoetxea y D. Miguel Ángel Díez Bustos, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**5. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 5:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**5. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 5:**

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 15 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 0.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 15 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 0.

5. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 5:

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 15 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 3 – PP.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 15 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 3 – PP.

5. KONTROL MOZIOAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 5:

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 23 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 0
ABSTENTZIOAK: 3 – PP.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 23 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 0.
ABSTENCIONES: 3 – PP.

5. KONTROL MOZIOAREN 5. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 5 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 5:

BOZKETAREN EMAITZA:

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 23 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 0**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 23 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 0.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**II.2.6. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak aurkeztua, berdintasun ordenantza dela eta.**

“Amaia Martin Garinek, Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaileak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluan oinarrituta, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, hil honetan Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Maiatzaren 15ean, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean, Berdintasuneko zinegotzi ordezkari Arrizabalaga andreari interpelazio bat aurkeztu genion, gure taldeak otsailaren 16ko Berdintasun Batzordean aurkeztu zuen berdintasun ordenantzaren proposamenaren ingurukoa.

Kontseiluaren bilera horretan, berdintasuneko zinegotziak egutegi bat egiteko konpromisoa hartu zuen, gure ordenantza proposamena lantze aldera eta Kontseiluaren hurrengo bileran, maiatzaren 4an, aurkezteko. Halere, egutegi hori ez zen aurkeztu Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrean, ezta maiatzaren 4ko osoko bilkuran ere.

Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean, berdintasun zinegotziak azaldu zuen lantalde

**II.2.6. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre la ordenanza de igualdad.**

“Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL consecuencia de la interpelación en la Comisión de Servicios a las Personas del presente mes.

JUSTIFICACIÓN

En la Comisión de Servicios a las Personas del pasado día 15 de mayo, interpelamos a la concejala delegada de Igualdad, Sra. Arrizabalaga, en relación a la propuesta de ordenanza de igualdad que nuestro grupo presentó en el Consejo de Igualdad del 16 de febrero pasado.

En la citada reunión del Consejo, la concejala de igualdad se comprometió a elaborar un calendario para trabajar sobre nuestra propuesta de ordenanza y presentarlo en la siguiente reunión del Consejo celebrada el 4 de mayo. No obstante, ni en la Comisión Permanente del Consejo, ni en el Plenario de 4 de mayo, se presentó dicho calendario.

En la Comisión de Servicios a las Personas, la concejala de igualdad explicó que se iba a crear

tekniko bat sortuko zela, gure ordenantza proposamenetik abiatuta, sail bakoitzaren arauak biltzeko eta proposamen horretan irudikatzeko. Dena dela, ez zuen horretarako eperik zehaztu. Badakigu Udaletako Berdintasun teknikariek lan garrantzitsua egiten dutela, eta badakigu ordenantza bat egiteak zer dakarren; hala ere, uste dugu berdintasun zinegotziak askotan agertu duela prestasuna berdintasun ordenantza bat onartzearen alde. Hortaz, Berdintasun Bulegoak hori gauzatzeko beharrezko dituen euskarriak izatea nahi dugu.

un grupo de trabajo de tipo técnico para, partiendo de nuestra propuesta de ordenanza, recopilar las normas dispersas en cada departamento y reflejarlas en la misma, pero no detalló plazos para hacerlo. Somos conscientes del importante trabajo que llevan a cabo las técnicas de Igualdad del Ayuntamiento, y lo que supone la elaboración de una ordenanza, si bien confiamos en que la disposición mostrada en diversas ocasiones por la concejala de igualdad favorable a la aprobación de una ordenanza de igualdad, se vea reflejada en que el Negociado de Igualdad cuente con los medios necesarios para llevarla adelante.

Bestalde, batzordean, harritu egin gintuen Arrizabalaga andreak esatea parte hartzeko legezko aurreikuspenetatik harago ez zela tarte handirik izango ekarpenetarako, eta, gainera, ez zitzaigun lan egutegirik zehaztu Berdintasun Batzordeak berak parte hartzeko. Uste dugu Kontseiluak parte hartzea ezinbestekoa dela, parte hartzeko organo horren araudiaren beraren 4. artikuluan zehazten den moduan; are gehiago, onartu beharrekoa berdintasun ordenantza bat bada.

Por otra parte, en la comisión, nos sorprendió que la Sra. Arrizabalaga nos dijera que más allá de las previsiones legales de participación, no iba a haber mucho margen para aportaciones, y no nos concretó ningún calendario de trabajo para la participación del propio Consejo de Igualdad. Creemos que la participación del Consejo es imprescindible; tal y como establece el propio Reglamento de ese órgano de participación en su Artículo 4, más aún si lo que se va a aprobar es una ordenanza de igualdad.

Hori dela eta, honako kontrol mozio hau aurkezten dugu:

Por todo ello, presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatu nahi dio udal taldeei jakinarazteko berdintasun ordenantza bat egiteko lantaldeen eraketari buruz, horien lanari buruz eta ordenantza onartzeko aurreikusitako egutegiari buruz.

2. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatu nahi dio Berdintasun Bulegoari beharrezko euskarriak emateko, berdintasun ordenantza egiteko lanak gauzatu ahal izateko.

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que informe a los grupos municipales sobre la constitución del grupo de trabajo para la elaboración de una ordenanza de igualdad, sobre sus trabajos y el calendario previsto para su aprobación.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a facilitar los medios necesarios al Negociado de Igualdad para llevar a cabo los trabajos de

elaboración de la ordenanza de igualdad.

3. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatu nahi dio Berdintasun Kontseiluaren parte hartzea bultzatzeko berdintasun ordenantza egiteko lanean, Kontseiluaren beraren araudiak ezartzen duen moduan.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que impulse la participación del Consejo de Igualdad en el trabajo de elaboración de la ordenanza de igualdad, tal y como establece el Reglamento del propio Consejo.

Donostia, 2017ko maiatzaren 19a

Izpta.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea".

Donostia a 19 de mayo de 2017

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Naiara Sampedro Perez andreak eta Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las señoras Dª. Amaia Martín Garín, Dª. Naiara Sampedro Perez y Dª. Duñike Agirrezabalaga Ugarte, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 – (4) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 – (4) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0**

---------------

**II.2.7. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak aurkeztua, turismo tasa dela eta.**

**II.2.7. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre la tasa turística.**

"Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa Ogasun

"Amaia Martin Garin, portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL,

Batzordean turismo tasari buruz egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Gure udal taldea legegintzaldiaren hasieratik azpimarratzen ari da beharrezkoa dela turismo tasa bat ezartzea hirian, turismoak eragindako udal zerbitzuen areagotzeari aurre egin ahal izateko.

Hasieran, bazirudien udal gobernua ez zegoela prest gure taldearen proposamena aztertzeko, baina, azkenean, 2016ko uztailaren 15ean, Udalbatzak aho batez onartu zuen gure kontrol mozioa, testu honen bitartez: “Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio egokiak iruditzen zaizkion gestio guztiak egiteko, etorkizuneko Turismo Legeak jaso dezan Euskal Autonomia Erkidegoko udalek aukera izan behar dutela turismo tasa bat ezartzeko ostatu gauengatik”.

Joan den urtean, EAJ, EH Bildu eta PSE alderdien aldeko botoekin, Eusko Legebiltzarrak Turismo Legea onartu zuen, Euskadiko turismo jarduerarekin loturiko hainbat alderdi arautzen dituena, baita administrazio publikoen jarduera printzipioak eta irizpideak ere. Hala ere, zoritxarrez, turismoa BPGdaren % 6 izan arren, Legeak ez zuen arautu turismo tasa bat ezartzea, nahiz eta Estatuko eta Europako beste hiri batzuek dagoeneko ezarri duten.

Turismoa hazten ari da Euskadin; Donostian, batez ere. Izan ere, 2016an 1,8 milioitik gora ostatu gau izan ziren hirian. Kopuru horrek garbi adierazten du zenbat pertsona etorri ziren hirira.

consecuencia de la interpelación en la Comisión de Hacienda sobre la tasa turística.

JUSTIFICACIÓN

Nuestro grupo municipal lleva desde el inicio de la legislatura insistiendo en la necesidad del establecimiento de una tasa turística en la ciudad que pueda contribuir a hacer frente al incremento de servicios municipales que el turismo provoca.

Aunque inicialmente el Gobierno municipal no parecía dispuesto a analizar la propuesta de nuestro grupo, finalmente el 15 de julio de 2016, el Pleno municipal aprobó por unanimidad nuestra moción de control con el siguiente texto: “El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que realice cuantas gestiones considere oportunas para que la futura Ley de Turismo incluya la posibilidad de que los ayuntamientos de la Comunidad Autónoma de Euskadi puedan establecer una “tasa turística” por las pernoctaciones en los mismos”.

Lamentablemente, el pasado año con el voto favorable de PNV, EH Bildu y PSE, el Parlamento Vasco aprobó la Ley de Turismo que regula distintos aspectos relacionados con la actividad turística en Euskadi, así como los principios y criterios de actuación de las administraciones públicas. No obstante, y a pesar de que el turismo representa ya un 6% del PIB, la ley no incorporó el establecimiento de una “tasa turística”, tal y como ya están haciendo otras ciudades tanto del Estado como europeas

El turismo sigue creciendo en Euskadi, y en Donostia especialmente. Así, durante 2016 se registraron más de 1,8 millones de pernoctaciones en la ciudad, lo que da una idea del número de personas que nos visitaron.

Bai alkateak bai turismo sailburuak turismo tasa ezartzeari buruzko adierazpen publikoak egin dituzte. Hala eta guztiz ere, ez da horri buruzko inolako urratsik eman.

Tanto el Sr. Alcalde como el Consejero de Turismo han hecho declaraciones públicas sobre el establecimiento de la tasa turística. A pesar de ello, no se ha materializado ningún paso al respecto.

Horiek guztiak horrela, kontrol mozio hau aurkezten dugu:

Por todo lo anteriormente expuesto, presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCION DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio egin daitezkeen jarduketa guztiak egin ditzala, bai Eusko Jaurlaritzarekin, bai Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, hirian turismo tasa ezartzea lortze aldera, legegintzaldi hau amaitu baino lehen.

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al gobierno municipal a que lleve a cabo todas las acciones posibles tanto con el Gobierno Vasco como con la Diputación Foral de Gipuzkoa al objeto de conseguir implantar la tasa turística en la ciudad antes del final de la presente legislatura.

Donostia, 2017ko maiatzaren 19a

Donostia a 19 de mayo de 2017

Izpta.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea".

Fdo. Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Amaia Martin Garin andreak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto la señora Dª. Amaia Martín Garín, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.8. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak aurkeztua, diseinatzaile berrientzako espazioei buruzkoa.**

**II.2.8. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre espacios para nuevas diseñadoras.**

"Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia

"Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo

Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean hil honetan bideratutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den maiatzaren 15ean, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean, Ekonomia Bultzatzeko zinegotzi ordezkari Gasko jaunari galdetu genion zergatik aukeratu den Garbera merkataritza gunea gure hiriko zazpi diseinatzaileren lana erakusteko. Hori guztia Donostiako Sustapenaren bitartez Donostiako Modaren Clusterrak bultzaturik egin delarik.

Gasco jaunak informatu zuen merkataritza gune hori aukeratu zutela hango arduradunek merkataritza guneko erdialdea dohainik erabiltzea eskaini zutelako, zazpi diseinatzaileek beren lanak erakuts zitzaten. Horrez gain, jakinarazi zigun beste aukera batzuk ere kontuan izan zituztela, hala nola Arcco merkataritza gunea; baina azkenean aukera horrek ez zuela aurrera egin.

Halaber, zinegotzi ordezkariak adierazi zuen lekuari buruzko zalantzak izan zituela, eta lehenago ere arrakastarik gabeko beste saiakera batzuk egin zirela hirian; esaterako, hiriko saltokietan bertan diseinatzaile berrientzako espazio bat izatea. Halaber, adierazi zuen esperientzia positiboa izaten ari dela, baina aldeak daudela diseinatzaile bakoitzaren emaitzei dagokienez, eta gaineratu zuen Garbera merkataritza guneaz bestelako lekuak aztertzeko asmoa duela hurrengo ekitaldietarako.

Lekuei dagokienez, gobernu programak, Merkataritza eta Ostalaritza atalean, zenbait neurri aplikatzea aurreikusten du,

municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL consecuencia de la interpelación en la Comisión de Servicios a las Personas del presente mes.

JUSTIFICACIÓN

En la Comisión de Servicios a las Personas del pasado día 15 de mayo, interpelamos al concejal delegado de Impulso Económico, Sr. Gasco, sobre las razones por las que se había elegido el centro comercial Garbera para mostrar el trabajo de siete diseñadoras de la ciudad. Todo ello impulsado por el Clúster Donostia Moda de Fomento de Donostia / San Sebastián.

El Sr. Gasco informó de que la elección del centro comercial se debía al ofrecimiento por parte del centro para utilizar de forma gratuita el espacio central del mismo para que las siete diseñadoras seleccionadas pudieran exponer sus trabajos. También nos informó de que se habían barajado otras opciones como el centro comercial Arcco, pero que finalmente esta opción no prosperó.

Asimismo, el concejal delegado manifestó las dudas que tuvo en relación a la ubicación, y que anteriormente ya se habían hecho otros intentos sin éxito en la ciudad. como que en los propios comercios locales hubiera un espacio para nuevas diseñadoras. También informó de que la experiencia está siendo positiva, aunque desigual respecto a los resultados para unas u otras diseñadoras, y manifestó su voluntad para analizar ubicaciones diferentes a la del centro comercial Garbera para futuras ediciones.

En relación a las ubicaciones, el programa de gobierno en el apartado de Comercio y Hosteleria, incluye la aplicación de medidas

merkataritzaren aldetik gehien degradatutako hiri espazioak suspertzeko. Neurri horiek erdialdeko hiriguneetarako ere aurreikusten dira, gutxi erabiltzen diren lokal publiko eta pribatuetarako, zenbait formula erabiliz. Horrez gain, programak barne hartzen du hutsik dauden lokalen errolda bat egitea, lokal horiek suspertzeko eta dinamizatzeko proiektuak egiteko, edo hutsik dauden lokalak alokatzeko bitartekotza eta sustapen zerbitzu bat eskaintzeko, lokalen mantentze arduratsua bermatuko duena.

Aipatutako neurriak abian jarriz gero, bi premia bete ditzakete: alde batetik, orain itxita dauden lokalak irekitzea; eta bestetik, hiriko diseinatzaileen lana ezagutaraztea.

Gainera, Gasco jaunak Garberaz bestelako aukerak aztertzea proposatu zigunez, uste dugu Tabakalera gune egokia izan daitekeela, diseinuan eta materialetan berrikuntzak egiten ari diren hiriko pertsonek beren lanak erakusteko leku bat izan dezaten. Era berean, Donostiako oinezkoentzako kaleak, behar bezala egokituak, pertsona sortzaile horien erakustoki ere izan daitezke. Hitz batez, gure iritziz merkataritza gune bat baino leku hobeak aztertu beharko lirateke; izan ere, gune horietan merkataritza marka handiak daude eta hiriko sortzaileak nekez lehiatu daitezke haiekin, eta, gainera, ez dago zertan egin doako publizitatea merkataritza gune horiei.

Horregatik guztiagatik, kontrol mozio hau aurkeztu dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio Garbera merkataritza guneaz bestelako aukerak aztertzeko,

para reactivar los espacios urbanos más degradados comercialmente. Medidas que también se prevén para entornos urbanos centrales, en locales públicos o privados infrautilizados con diferentes fórmulas. Asimismo, el programa incluye la elaboración de un censo de locales vacíos para llevar a cabo proyectos de revitalización y dinamización de los mismos, o un servicio de intermediación y fomento de alquiler de locales vacíos a cambio de unas condiciones que garanticen un mantenimiento responsable.

La puesta en marcha de las medidas mencionadas anteriormente, podrían dar respuesta a dos necesidades: por un lado, abrir locales que ahora están cerrados, y por otro dar a conocer el trabajo de las personas diseñadoras de la ciudad.

Además, y dado que el Sr. Gasco nos tendió la mano para estudiar otras alternativas a Garbera, creemos que Tabakalera podría ser un espacio adecuado para que personas que están innovando en diseño y en materiales en la ciudad, tengan un lugar en el que poder exponer sus trabajos. Igualmente, las calles peatonales de Donostia, debidamente acondicionadas podrían albergar a estas personas creadoras. En definitiva, creemos que se pueden estudiar ubicaciones mejores que un centro comercial en el que están instaladas grandes marcas comerciales con las que difícilmente pueden competir los y las creadoras locales, evitando además hacer publicidad gratuita a dicho centro.

Por todo ello, presentamos la siguiente

MOCION DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno a analizar alternativas al centro comercial Garbera, para

Donostiako Sustapeneko Moda Klusterraren proiektuko hurrengo ekitaldietarako, hiriko diseinatzaileen lana ezagutarazteko.

las siguientes ediciones del proyecto del Clúster de la Moda de Fomento de Donostia / San Sebastián para dar a conocer el trabajo de personas diseñadoras locales.

2. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio hutsik dauden lokalen errolda egiteko, gobernu programan aurreikusten den bezala, bai eta hutsik dauden lokalak alokatzeko eta sustatzeko bitartekotza zerbitzua sortzeko ere.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno a elaborar el censo de locales vacíos previsto en su programa de gobierno, así como a crear el servicio de intermediación y fomento de alquiler de locales vacíos.

Donostia, 2017ko maiatzaren 19a

Donostia a 19 de mayo de 2017

Izpta.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea".

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak, Miren Albistur Garmendia andreak eta Josu Ruiz Martin jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as Dª. Amaia Martín Garín, D. Ernesto Gasco Gonzalo, Dª. Miren Albistur Garmendia y D. Josu Ruiz Martín, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0**

---------------

**II.2.9. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak aurkeztua, Abegi Etxeko menuen kontratua dela eta.**

**II.2.9. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre el contratao de menús del Abegi Etxea.**

"Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia

"Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo

Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, MOZIO hau aurkeztu nahi du, Abegi Etxeari erantsitako eraikinari buruz, Udalbatzan azter dadin. Mozioa hilabete honetan batzordean egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Udalak larrialdiko ostatua emateko baliabideen artean, Udalaren Gizarte Abegi Etxeari (UGAE) erantsitako eraikina dago. Gizarte Ekintzaren azken urteotako txostenetan, baliabide horren erabilerak gora egin duela adierazten da. Izan ere, 2014an, 31 bizikidetza unitate zeuden, 51 adingaberekin, eta 312 okupazio egun izan ziren guztira; 2015ean, 39 familia, 65 adingaberekin, eta 337 okupazio egun, eta aurten, berriz, 28 familia. Deigarria da 2016an bizikidetza unitateen kopuruak behera egin zuela, baina erabilitako egunen kopuruak, berriz, gora egin zuela 365era iritsi arte. Beraz, espazioaren erabilera intentsiboari buruzko gogoeta egin behar da; izan ere, prekarioa da, aurreko udalbatzetan adierazi izan den bezala, eta ez da erosoa larrialdi egonaldietarako.

2016ko otsailean, mozio bat aurkeztu genuen, Abegi Etxean ostatu hartzen zuten familien (adingabekoekin) oinarrizko beharren estaldura hobetzeko. Leku horretan, egonaldiak ez dira hiru gaukoak baino luzeagoak izaten, salbuespenak salbuespen, baina errealitatea nagusitzen ari da, eta familientzako beste gela batzuk lortzeko aukera, askotan, atzeratu egiten da, edota, zenbait egoera tarteko, erantsitako eraikinean denbora gehiago geratzeko aukera balioesten da.

Gogorarazi behar dugu orduan ere eskatu genuela hobetu egin behar zela erantsitako eraikinean ostatu hartutako adingabekoen

Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta fruto de la interpelación realizada este mes en comisión la siguiente MOCIÓN PARA SU DEBATE EN EL PLENO, sobre el anexo del Abegi Etxea.

JUSTIFICACIÓN

Entre los diferentes recursos de acogida de emergencia con los que cuenta el Ayuntamiento, se encuentra el anexo del Centro Municipal de Acogida Social (CMAS). Los informes de los últimos años de Acción Social, vienen a señalar un aumento del uso de este recurso, desde las 31 unidades convivenciales con 51 menores y un total de 312 días para el año 2014, pasando el 2015 a 39 familias con 65 menores y una ocupación del anexo de 337 días, a las 28 familias del presente año. Llama la atención que a pesar de darse un descenso en el número de unidades convivenciales en 2016, los días utilizados han aumentado a 365. Por tanto, es preciso reflexionar sobre el uso intensivo del espacio, que como se ha señalado en plenos anteriores es precario y ni siquiera resulta confortable para estancias de urgencia.

Ya en febrero de 2016 presentamos una moción en la que planteábamos la necesidad de mejorar la cobertura las necesidades básicas de las familias con menores que aquí se alojaban. A pesar de tratarse de un lugar donde las estancias, salvo excepciones no superen las tres noches, la realidad se impone y la posibilidad conseguir alternativas habitacionales para las familias en muchos casos se demoran o bien, por diferentes circunstancias, se valora su continuidad en el anexo durante un mayor espacio de tiempo.

Debemos recordar que ya entonces solicitamos la necesidad de mejorar tanto la alimentación como la escolarización de los menores que se

elikadura eta eskolatzea denbora luzeagoz. Halaber, neurriak hartzearen beharra azpimarratzen genuen, bestela ahultasun eta pobrezia egoerak iraunarazten ditugu adingabe horien artean, lo egiteko leku egonkor bat ez dutelako.

alojaban en el anexo por un tiempo superior al habitual y de igual modo instábamos al gobierno municipal a establecer medidas porque, de lo contrario, perpetuamos situaciones de vulnerabilidad y pobreza en estos menores por la simple circunstancia de no tener un lugar estable donde dormir.

Gure ustez, premiazkoak dira, batez ere, adingabekoen elikadura hobetzeko eman behar diren urratsak. Dieta orekatua behar dute, bizi-garapen positiboa izan dezaten, baina ematen den menua berdina da helduentzat zein haurrentzat, eguneko behar diren bost otorduak kontuan hartu gabe. Era berean, bularreko haurren egoera bereziki kezkagarria da; gainera, oso instalazio prekarioetan daude, konforterako ia espaziorik gabe.

Consideramos que los pasos que se han de dar para mejorar la alimentación, fundamentalmente, de los menores, son urgentes. Es preciso una dieta equilibrada que permita un desarrollo vital positivo y el menú que se proporciona es igual para adultos y niños, sin contar con las cinco comidas al día requeridas. De igual modo, mostramos especial preocupación en los lactantes, los cuales además están en instalaciones muy precarias y sin apenas espacio para su confort.

Zinegotzi ordezkariak batzordean adierazi zuen ez dutela menuen kontratua aldatzeko asmorik, nahiz eta kontratatutako menuek ez bete erantsitako eraikinean batera egon daitezkeen pertsona guztien beharrak. Bestalde, azaldu zuen erantsitako eraikinean sukalde bat dagoela janaria prestatzeko.

La concejala delegada en comisión señaló que no tienen intención de modificar el contrato de menús, a pesar de que los menús contratados no lleguen a cubrir las necesidades de todas las personas que llegan a estar a la vez en el anexo. Por otro lado, ha explicado que además hay una cocina para cocinar en el anexo.

Gure udal taldea kezkatuta dago eraikin horretan ostatu hartzen duten pertsonen elikaduraz, adingabekoen elikaduraz batik bat. Oinarrizko eskubide bat da eta, horregatik, kontrol mozio hau aurkezten dugu:

Nuestro grupo municipal mantiene su preocupación por la alimentación de las personas que allí se alojan, especialmente de los menores. Se trata de un derecho básico y por ello planteamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio Abegi Etxeari erantsitako eraikineko erabiltzaileei galdeketa bat egiteko hiru hilabeteko epean, haien egonaldiaren konfortari buruzko eta egun betetzen ez diren beharrei buruzko datuak jasotzeko, instalazioa hobetzeko helburuarekin.

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a elaborar, en el plazo de tres meses, una encuesta entre los usuarios del anexo del CMAS para recoger datos relativos al confort en su estancia y/o las necesidades no cubiertas actualmente al objeto de mejorar la instalación.

2. Donostiako Udalbatzak udal

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia /

Gobernuari eskatzen dio oraingo menuak osatzeko, beste elikagai batzuekin batera, hazten ari diren adingabeek eguneko oinarrizko bost otorduak izan ditzaten.

Donostia, 2017ko maiatzaren 19a

Izpta.: Amaia Martin,
Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzia".

San Sebastián insta al Gobierno Municipal a complementar los menús actuales junto con otros alimentos que permitan cubrir las cinco comidas diarias básicas para los menores en edad de crecimiento.

Donostia a 19 de mayo de 2017

Fdo.: Amaia Martin
Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Aitziber San Roman Abete andreak, Jose Luis Arrue Pinto jaunak eta Olaia Duarte Lopez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as Dª. Amaia Martín Garín, Dª. Aitziber San Román Abete, D. Jose Luis Arrúe Pintó y Dª. Olaia Duarte López, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**II.2.10. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak aurkeztua, hirian banku bulegoak ixtea dela eta.**

"Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa hil honetako Batzordean bideratutako interpelazioaren ondorio da.

**II.2.10. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre el cierre de oficinas bancarias en la ciudad.**

"Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL consecuencia de la interpelación en la Comisión de del presente mes.

JUSTIFIKAZIOA

Kutxabankek Herreran dituen bulegoen itxierari buruzko bi mozio eztabaidatzeko aukera izan dugu duela gutxi Udalbatzan. Gure taldeak aurkeztutako mozioa onartu egin zen, eta zenbait gauza eskatzen genizkion Udal Gobernuari: batetik, beharrezko izapideak egitea Kutxabankek Herrerako sukurtsala irekita utz dezan; eta, bestetik, Kutxabanki jakinaraztea ezinezkoa dela hiriko beste auzoren bat zerbitzu horiek gabe uztea.

Adineko pertsona asko bizi dira gure hirian, eta pertsona horiek beren inguruan beste inoren mende izan gabe ahalik eta denbora gehien egotea zaildu besterik ez du egiten banku-bulegoak pixkanaka desagertzen joateak.

Bestalde, tokiko merkataritza, auzoetan bereziki, sustatu beharreko ardatzetako bat dela kontuan hartuta, beren jarduerarekin hasteko edo jarraitzeko erraztasunak ematen saiatzea behar-beharrezkoa da. Eta zalantzarik gabe, dendetatik gertu banku bulegoak egoteak horri mesede egiten dio.

Aipatutako arrazoiengatik, etorkizunean ere gure hiriko auzo guztietan banku-bulegoak egotea sustatu behar da bai ala bai, behar-beharrezkoa den zerbitzua ematen baitiote herritarrei nahiz saltokiei eta dendei.

Batzordean, Udal Gobernuak Kutxarekin egindako gestioei eta aurrerantzean emango diren urratsei buruz eztabaidatu zen, eta han jakinarazi ziguten finantza-erakundeak “enpresa irizpideak” eman dituela Herrerako bulegoa ixteko erabaki hori arrazoitzeko. Era berean, Kutxabank erakunde pribatu bat denez gero,

JUSTIFICACIÓN

Recientemente hemos tenido ocasión de debatir en el pleno en torno a dos mociones sobre el cierre de las oficinas de Kutxabank en Herrera. En la moción que presentó nuestro grupo y que fue aprobada se pedían varias cosas al gobierno municipal: por un lado que hiciera las gestiones necesarias para que Kutxabank mantuviera abierta la sucursal de Herrera, y por otro que trasladara a Kutxabank la necesidad de no dejar sin servicio a ninguna otra zona de la ciudad.

Siendo el colectivo de personas mayores numeroso en nuestra ciudad, la progresiva desaparición de oficinas bancarias no hace sino dificultar que este colectivo pueda permanecer el mayor tiempo en su entorno sin depender de otras personas.

Por otra parte, siendo el impulso del comercio local, y en particular en los barrios, uno de los ejes a impulsar resulta indispensable procurar que estos dispongan de facilidades a la hora de establecer o continuar sus actividades. Sin duda la proximidad de oficinas bancarias en torno a los establecimientos juega en favor de ello.

Debido a las razones enumeradas, no cabe duda de que la permanencia de oficinas bancarias en la totalidad de barrios de nuestra ciudad debe promoverse al ofrecer éstas un servicio indispensable tanto a sus vecinos y vecinas como a los comercios y establecimientos.

Al tratar en comisión las gestiones que ha realizado el Gobierno municipal en Kutxa, y los pasos que se van a tomar en adelante, se nos informó de que la entidad financiera ha alegado “criterios empresariales” para justificar su decisión en relación al cierre de la oficina de Herrera. Asimismo, se nos indicó que, al ser

haren erabakietan eragiteko modurik ez dagoela esan ziguten. Erantzun hori espero genuen, baina ez da onargarria, Kutxabank eratzeko hiru aurrezki-kutxek jatorri publikoa dutelako. Hori gutxi balitz, Kutxabanken Administrazio Kontseiluan eta euskal aurrezki-kutxen hiru banku fundazioen patronatuetan ordezkari politikoak esertzen dira, eta ordezkari politiko horiek finantza erakunde horien interes publikoa kontuan hartu beharko lukete.

Kutxabank una entidad privada, no hay gran margen para poder influir en las decisiones que toman. Esta respuesta, aunque esperada, no es admisible debido al origen público de las tres cajas de ahorros que han constituido Kutxabank. Más aún, quienes se sientan tanto en el Consejo de Administración de Kutxabank, como en los patronatos de las tres fundaciones bancarias de las cajas vascas, son representantes políticos que deberían tener en cuenta el interés público de esas entidades financieras.

Kutxaren Patronatua hamaika kidez osatua dago, eta horietako bat da Donostiako Udala. Hortaz, uste dugu Udalak, Kutxaren eta Banku Fundazioaren Patronatuaren kide sortzaileetako bat den aldetik, eta Kutxabanken Administrazio Kontseiluko ordezkari politikoek zerbitzu publikoko irizpideak erabili behar dituztela, eta ez soilik enpresaren logika, are gehiago Kutxabanken jatorria zein den kontuan hartuta.

El Patronato de Kutxa lo conforman once miembros, siendo uno de ellos el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián. Por lo tanto, creemos que el Ayuntamiento, en calidad de miembro fundador de Kutxa y del Patronato de la Fundación Bancaria, y los representantes políticos en el Consejo de Adminsitración de Kutxabank, deben atender a criterios de servicio público, y no sólo a la lógica “empresarial”, más aún teniendo en cuenta el origen de Kutxabank.

Horrengatik guztiarengatik, hau da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Kutxaren eta Banku Fundazioaren patronatuaren kide sortzaile izan izana erabili dezala, Kutxabankek hiriko auzo guztietan gutxieneko finantza zerbitzu bat eman dezala ziurtatzeko.

Donostia, 2017ko maiatzaren 19a

Stua.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea”.

Por todo ello, presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que haga valer su calidad de miembro fundador de Kutxa y del patronato de la Fundación Bancaria, para que todos los barrios de la ciudad tengan garantizado un servicio financiero mínimo por parte de Kutxabank.

Donostia a 19 de mayo de 2017

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia”.

Amaia Martin Garin andreak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto la señora Dª. Amaia Martín Garín, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.11. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak aurkeztua, hirian zeremonia zibilak egitea dela eta.**

"Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean zeremonia zibilei buruz egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Estatu konfesional eta laiko batean, pertsonen eta elkarteen askatasun ideologikoa eta erlijiosoa eta gurtzarako askatasuna bermatu behar dute erakundeek. Hil ondorengo hiletak edo omenaldi zibilak egiteko behar soziala herritarrei zeremonia duin eta pertsonal bat eskaintzeko beharretik sortzen da, herritar horiek bizitza ulertzeko duten modua errespetatzeko.

Konfesio erlijiosoek liturgia-ekitaldiak egiteko espazioak dituzten bezala, Udalak behar sozial horri erantzun behar dio. Horrela, EAJk eta PSEk beren udal programan esan zuten "donostiarrentzako zerbitzu berriak sortuko zituztela Udalaren hainbat espaziori erabilera berriak emanez, adibidez, ekitaldi ez-erlijiosoak egin ahal izango zirela Aieteko Jauregian Donostiako herritarrak hiltzen zirenean".

**II.2.11. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre ceremonias civiles en la ciudad.**

"Amaia Martin Garin, portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación en la Comisión de Servicios a las personas relativo a las ceremonias civiles .

JUSTIFICACIÓN

En un Estado confesional y laico las instituciones deben de garantizar la libertad ideológica, religiosa y de culto de las personas y comunidades. La celebración de funerales u homenajes civiles por fallecimiento nace de la necesidad social de ofrecer a las ciudadanas y ciudadanos una ceremonia digna y personal que respete su manera de entender la vida.

Así como las diferentes confesiones religiosas cuentan con espacios para desarrollar sus actos litúrgicos, es preciso que el ayuntamiento dé respuesta a esta necesidad social. De este modo, en el programa de gobierno de PNV-PSE señalan que "van a promover nuevos servicios a las y los donostiarras con la habilitación de espacios municipales , como el del Palacio de Aiete para la celebración de actos no religiosos por el

fallecimiento de vecinos o vecinas de Donostia".

Hala ere, hil honetako batzordean gobernuak adierazi zuen azkenean ezingo dela Aieteko Jauregia erabili horrelako ekitaldiak egiteko, ez baititu baldintzak betetzen irisgarritasunari dagokionean.

Sin embargo, en la comisión celebrada este mes, el gobierno señaló que Aiete finalmente no podía ser un espacio para celebrar tales actos ya que no cumple con los requisitos de accesibilidad requeridos.

Azken asteetan, Miramar Jauregiaren erabilerei buruzko eztabaidan esan da jauregi horretako zatiren bat ere horrelako ekitaldiak egiteko erabiltzeko aukera egon zitekeela. Baina, Irabazi Donostia udal taldeak aurkeztutako interpelazioaren aurrean, zinegotzi ordezkariak batzordean adierazi zuen hori ere ezingo dela gauzatu, tokiko erakundeaz gain beste erakunde batzuen mende ere badagoelako espazio horren kudeaketa, eta, hortaz, antza denez, aukera hori ere baztertu egin da.

En las últimas semanas, en torno al debate relativo a los usos del Palacio Miramar, igualmente se ha señalado la posibilidad de utilizar alguno de sus espacios para este tipo de actos. Sin embargo, en la comisión el concejal delegado ante la interpelación presentada por Irabazi Donostia, señaló que tal posibilidad no podía concretarse ya que la gestión de tal espacio dependía de más administraciones que la local y por tanto, igualmente, parecía descartarse.

Zeremonia zibilak egiteko tokiak prestatu behar dira, gobernu taldeak berak bere gobernu programan aitortutako behar sozial horri erantzun bat eman behar zaio eta. Horregatik, konponbideak eman behar dira; izan ere, legegintzaldi honetan hainbat ekimen aurkeztu diren arren, orain arte ez dago beste aukerarik mahai gainean. Hori dela eta, gobernu taldeari eskatzen diogu xede horrekin laga litezkeen instalazio publikoen zerrenda bat zehaztu dezala, bai eta lagapen horien erregulazioa ere.

Es imprescindible habilitar espacios para ceremonias civiles al objeto de satisfacer esta necesidad social que el propio equipo de gobierno reconoció en su programa de gobierno. Por ello, es preciso dar soluciones ya que, tras diversas iniciativas presentadas a lo largo de la legislatura, hasta ahora no se está planteando ninguna alternativa al respecto. De ahí que solicitemos al equipo de gobierno detallar una serie de instalaciones públicas que puedan ser cedidas para tal fin, del mismo modo, que la regulación de tales cesiones.

Azpimarratu nahi dugu jadanik euskal geografian badaudela eskaera horri erantzun bat eman dioten hainbat udalerri, eta horietako batzuek horrelako ekitaldiak egiteko moduari buruzko ordenantza propio bat egin dutela eta horrelako ekitaldiak egiteko tokiak prestatu dituztela jadanik hainbat herritan eta hiritan. Urrutira joan gabe, Bizkaiko hiriburuak berak onartu egin du horrelako omenaldi eta agur zibilak egiteko espazioak erreserbatzeko orduan erraztasunak ematea, "prestatutako toki batean hileta laiko bat izateko eskubidea" aintzat

Queremos resaltar que ya en la geografía vasca hay numerosos municipios que han atendido a esta demanda, algunos de ellos desarrollando una ordenanza propia para el desarrollo de tales actos y se han habilitado espacios en los diferentes pueblos y ciudades para llevarlos a cabo. Sin ir más lejos, la propia capital vizcaína ha aprobado facilitar la reserva de espacios para llevar a cabo estos homenajes y despedidas civiles "atendiendo al derecho a tener un funeral laico en un lugar acondicionado" según recordaba la propia concejala de Atención Ciudadana, Participación y

hartuta, Bilboko Udaleko Herritarrentzako Arreta, Partaidetza eta Barrutien saileko zinegotziak berak gogorarazi duenez.

Distritos del ayuntamiento bilbaíno.

Horiek guztiak horrela, hau da gure

Por todo lo anteriormente expuesto, presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCION DE CONTROL

1. Donostiako Udaleko Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio hirian agur zibilak egiteko prestatu daitezkeen espazioen zerrenda bat egin dezala hiru hilabeteko epean.

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al gobierno municipal a elaborar en el plazo de tres meses un listado de espacios que puedan ser habilitados para la celebración de despedidas civiles en la ciudad.

2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio herritarrek agur zibilak egiteko instalazioak erabiltzeko gida bat egin dezala.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al gobierno municipal a elaborar una guía de uso de tales instalaciones al objeto de facilitar a la ciudadanía espacios para celebrar despedidas civiles.

Donostia, 2017ko maiatzaren 19a

2.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita al Gobierno Municipal que registre la propiedad de la parcela en la que está ubicado el campo de fútbol de Herrera a nombre del Ayuntamiento

Donostia, 2017ko maiatzaren 19an

En San Sebastián, a 19 de mayo de 2017

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Josu Mirena Ruiz Martin,
concejal del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Josu Ruiz Martin jaunak, Jose Luis Arrue Pinto jaunak, Enrique Ramos Vispo jaunak, Martin Ibabe Eceiza jaunak, Idazkari jaunak eta Loïc Alejandro jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Josu Ruiz Martín, D. José Luis Arrúe Pintó, D. Enrique Ramos Vispo, D. Martin Ibabe Eceiza, Sr. Secretario y D. Loïc Alejandro, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.24. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztuak, udal eta foru liburutegien bateratzea dela-eta.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko maiatzaren 15ean Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Gaur urtebete, alegia, 2016ko maiatzaren 19an kultura arloko udal eta foru arduradun politikoek iragarri zuten bi liburutegiak batzeko asmoa: hau da, Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokion Koldo Mitxelena kulturguneko liburutegia eta udal sarearen baitan dagoen Liburutegi Nagusia.

Udal zinegotzi ordezkariak azalpenak eman zituen ondoren, Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoan, azalduz gaia oraindik aztergai zegoela, aspektu asko landu behar

**II.2.24. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU en relación a la fusión de las bibliotecas municipales y forales.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Pleno. La moción es el resultado de la interpelación analizada el 15 de mayo de 2017 en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

Hace un año, el 19 de mayo de 2016, las personas que ostentan el cargo político del área de cultura tanto en el Ayuntamiento como en la Diputación anunciaron su intención de fusionar las dos bibliotecas, es decir, la biblioteca del centro cultural Koldo Mitxelena, perteneciente a la Diputación Foral de Gipuzkoa, y la Biblioteca Central, perteneciente a la red municipal de bibliotecas.

Posteriormente, la concejala delegada municipal dio explicaciones al respecto en la entidad pública empresarial Donostia Kultura, manifestando que la cuestión aún estaba pendiente de estudio, que

zirela, eta urte bukaerarako aditu baten txostenaren berri izango genuela. Abendua joan zen eta informazioa ailegatzen ez zenez, aurtengo urtarrilean galdetu egin genuen ea adituek eginiko txostena, udal eta foru liburutegien balizko bateratzeari dagokionez, egina ote zegoen, eta ezetz erantzun zigun zinegotzi ordezkariak; horrekin batera, azaldu zuen informazioa Donostia Kulturako Kontseilura eramango zuela.

había diversos aspectos aún por desarrollar y que antes de terminar el año tendríamos conocimiento de un informe pericial. Concluido el mes de diciembre y sin disponer de tal información, en enero preguntamos si, efectivamente, se había redactado ya dicho informe pericial sobre la supuesta fusión de las bibliotecas municipal y foral, a lo que la concejala delegada nos respondió que no; además, nos comunicó que trasladaría la información al Consejo de Donostia Kultura.

Geroztik Donostia Kultura EEPko Administrazio Kontseiluak bilkurak egin direla baina gaiaren inguruan informaziorik zabaldu ez dela ikusita, mozio honi bide eman dion interpelazioa egin genuen. Izan ere, hainbat informazio iturriren araberako mezu anitzak zabaldu dira Foru Aldundiko langileen kaleratzeak izango direla, bi erakundeen arteko egitasmoak, lehenengo, ez zuela aurrera egin behar (“momentuz batze-prozesuak ez du aurrera egingo”) eta ondoren, protokolo bat sinatzeko asmoarekin lanean ari direla. Maiatzaren 15eko batzordean gauzak argitzeko urrun gaudela zioen zinegotzi ordezkariak.

A pesar que, desde entonces, el Consejo de Administración de la EPE Donostia Kultura ha mantenido varias reuniones, no se ha facilitado información alguna sobre esta cuestión, y, por ese motivo, presentamos una interpelación, que es la que ha dado lugar a la presente moción. Y es que varias fuentes de información han difundido mensajes de diversa índole: algunos anunciaban que se van a producir despidos entre el personal de la Diputación Foral; otros señalaban, inicialmente, que el proyecto de las dos instituciones no iba a prosperar (“de momento el proceso de fusión no va a seguir adelante”), para, posteriormente, pasar a afirmar que se está trabajando para formalizar un protocolo. En la comisión del 15 de mayo, la concejala delegada manifestó que aún falta mucho para aclarar las cosas.

Bi egun geroago, Donostia Kultura EEPko Administrazio Kontseiluaren azken bilkuran, zinegotzi ordezkariak azalpen ugari eman zituen “Galde-eskeak” puntuaren barruan. Gaiak duen dimentsioa kontuan izanda, guztiz egokia da Kontseiluaren baitan sakon, luze eta behar besteetan aritzea, eta galdezka ibiltzea ez litzateke beharrezkoa izan beharko, baizik eta gaiaren inguruko aurrerapenak puntualki jaso beharko liratekeela. Baina, halaber, etorkizunean izan ditzakeen ondorioak kontuan hartuta, gaiari buruz publikoki aritzea ariketa sano, probetxuzkoa eta aberasgarria izan daitekeelakoan gaude, zerbitzuan aurreikusten diren aldaketak, onerako zein txarrerako,

Dos días más tarde, en la última reunión del Consejo de Administración de la EPE Donostia Kultura, la concejala delegada dio numerosas explicaciones dentro del punto "Ruegos y preguntas". Teniendo en cuenta la dimensión de este asunto, sería conveniente que se tratase en el seno del Consejo, de forma profunda y extensa, cuantas veces fuera necesario, de manera que no tuviéramos que andar preguntando, sino que estuviéramos informados puntualmente de los avances que se produzcan en este ámbito. Sin embargo, teniendo en cuenta las consecuencias que dicho proyecto puede acarrear en el futuro, consideramos que tratar este asunto públicamente es un ejercicio sano, provechoso y enriquecedor,

herritarrengan zuzenean eragingo dutelako; ez dira soilik maila teknikoan kokatu behar diren arazoak. Funtsak batzea, erosketak elkarrekin egitea, adibidez, hobekuntza teknikoak izan daitezkeelako, baina Alderdi Ederreko liburutegia itxi eta zerbitzuak (egunkarien irakurketa, liburuen mailegua,...) Koldo Mitxelena kultur-guneraino eramatea erabiltzaile askorentzat aldaketa ez positiboa izan daitekeelako, Parte Zaharrean eta Erdialdean Liburutegi Nagusiak betetzen duen funtzioa dela-medio. Etorkizunean batze horri buruzko erabaki egokia hartze aldera, guztiok ongi informatuak egotea eta herritarren iritzia ere ezagutua izatea egokia da. Poliki landu behar diren aspektuak dira hauek, eta helburuotan sakondu beharra ikusten dugu. Sen onekoa baita, ongi erabakitzeko, iritzi egokia emateko, ongi informatuta egon behar dela.

ya que los cambios previstos en el servicio tendrán, para bien o para mal, una incidencia directa en la ciudadanía. Por tanto, no se trata de problemas que deben tratarse a nivel exclusivamente técnico. Actuaciones como la fusión de fondos y las compras conjuntas pueden suponer mejoras técnicas; sin embargo, cerrar la biblioteca de Alderdieder y trasladar los servicios que ofrece dicha biblioteca (lectura de periódicos, préstamo de libros...) al espacio cultural Koldo Mitxelena puede no ser un cambio positivo para muchos usuarios y muchas usuarias, debido a la función que cumple la Biblioteca Central en la Parte Vieja y en el Centro. Para que en el futuro se adopte una decisión adecuada sobre esta fusión, es conveniente disponer de toda la información precisa y conocer la opinión de la ciudadanía. Son aspectos que hay que tratar pausadamente, y, según nuestra opinión, es necesario profundizar en ellos. Y es que es de sentido común informarse bien para decidir adecuadamente y dar una opinión apropiada.

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

Es por ello por lo que la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Liburutegi Nagusiko zerbitzu, funtsa, funtzionamendu, kokapen edo/eta bestelakoei dagozkien egitasmo berrien inguruko informazio egokiak puntualki zabal ditzan herritarren artean eta udal ordezkarien artean -Donostia Kulturako EEPko kontseilukideak izanik, zein udalbatzakideak izanik-.

1.- El Pleno solicita al Gobierno Municipal que difunda puntualmente entre la ciudadanía y entre los y las representantes municipales –en su condición de miembros del consejo de la EPE Donostia Kultura y del Pleno– la información correspondiente a los nuevos proyectos relacionados con los servicios, fondos, funcionamiento, ubicación, etc. de la Biblioteca Central.

2.- Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Liburutegi Nagusiko zerbitzu, funtsa, funtzionamendu, kokapen edo/eta bestelakoen etorkizunaz erabakirik hartu aurretik, kontuan izan ditzan herritarren, langileen zein udal taldeen iritziak, eta haiek entzuteko bideak ziurta ditzan.

2.- El Pleno solicita al Gobierno Municipal que, antes de que tome una decisión que afecte al futuro del servicio, de los fondos, del funcionamiento, de la ubicación, etc. de la Biblioteca Central, tome en cuenta la opinión de la ciudadanía, del personal y de los grupos municipales. Asimismo, le solicita que garantice que se habilitarán los cauces necesarios para que la opinión de todas estas partes sea escuchada.

3.- Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Liburutegi Nagusiko zerbitzu, funtsa, funtzionamendu, kokapen edo/eta bestelakoen etorkizunaz erabaki egokiak hartze aldera, lantzen diren txosten eta informazio teknikoen berri puntualki eta dagozkion organoen bidez eman dezan.

Donostian, 2017ko maiatzaren 19an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

3.- El Pleno solicita al Gobierno Municipal que, para poder tomar una decisión adecuada sobre el futuro del servicio, de los fondos, del funcionamiento, de la ubicación, etc. de la Biblioteca Central, dé a conocer, puntualmente, a través de los órganos pertinentes, los informes y las informaciones técnicas que se emitan.

San Sebastián, 19 de mayo de 2017

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
concejala del grupo municipal EH BILDU".

Eztabaida hasita, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Amaia Martin Garin andreak, Miren Azkarate Villar andreak eta Jose Luis Arrue Pinto jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as Dª. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, Dª. Amaia Martín Garín, Dª. Miren Azkarate Villar y D. José Luis Arrúe Pintó, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**II.2.25. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak egina, Donostia Kirolak diru-laguntza bat galdu duela-eta.**

"Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, honako MOZIO hau aurkezten du, Donostia Kirolak diru-laguntza bat

**II.2.25. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU relativa a la pérdida de una subvención de Donostia Kirola.**

"Josu Mirena Ruiz, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente MOCIÓN, relativa a la perdida de una

galdu duela-eta, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean maiatzaren 15ean egindako interpelazioaren ondorio da.

subvención por parte de de Donostia Kirola, a la consideración del Pleno. La presente moción trae causa de la interpelación sustanciada en la Comisión de las Personas el 15 de mayo de 2017.

JUSTIFIKAZIOA

Apirilean, Donostia Kiroleko Artezkaritza Kontseiluaren bileran, 2016ko ekitaldiaren kitapenari buruzko txostena aurkeztu ziguten. Bertan, inbertsioetarako Foru Aldundiaren 66.376,73 euroko onartutako diru-laguntza galdu dela adierazten da. Diru-laguntza hau aurreko Udal Gobernuak lortu zuen 2015ean, Atano III.ean hobekuntzak egiteko, eta hauek 2015-2016ko epean egin behar ziren.

Hobekuntzak ez dira aurreikusitako epean egin, ordea. Zinegotzi-ordezkariak bere erantzukizunei uko egin gabe, sailaren lan zama handia argudiatu zuen.

Honegatik guztiarengatik, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

MOZIOA

1-Donostiako Udalbatzak eskatzen dio Donostia Kirolakeko zinegotzi-ordezkariari, diru-laguntzak direla eta, barne protokolo bat onar dezan aurreikuspenak ez betetzeagatik beste erakunde batzuen diru-laguntzarik gal ez dadin.

Donostian 2017ko maiatzaren 19ean

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

JUSTIFICACIÓN

En abril, en el Consejo Rector de Donostia Kirola, nos presentaron el informe sobre la liquidación del ejercicio 2016. En ese informe, se indica que se ha perdido la subvención para inversiones aprobada por la Diputación Foral, con un valor de 66.376,73 euros. Esa subvención la había conseguido el anterior Gobierno municipal en 2015, para realizar mejoras en las instalaciones del frontón Atano III, las cuales se debían de llevar a cabo en el plazo 2015-2016.

En cambio, esas mejoras no se han realizado en el plazo previsto. Sin negar sus responsabilidades, la Concejalía delegada argumento la gran carga de trabajo del departamento.

Por todo ello, el concejal abajo firmante presenta la siguiente

MOCIÓN

1. El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta a la Concejalía delegada de Donostia Kirola a que elabore un protocolo interno sobre subvenciones, de modo que no se pierdan las ayudas económicas de otras instituciones por no cumplirse las previsiones.

En San Sebastián, a 19 de mayo de 2017

Josu Mirena Ruiz Martin,
concejal del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Josu Ruiz Martin jaunak, Jose Luis Arrue Pinto jaunak eta Martin Ibabe Eceiza jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Josu Ruiz Martín, D. José Luis Arrúe Pintó y D. Martin Ibabe Eceiza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.27. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, korporazioa eta irudi korporatiboa dela eta.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko maiatzaren 15ean Zerbitzu Orokorretako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko urrian lehen notizien jakitun izan ondoren, galdezka aritu gara Udal Gobernuak Udaleko irudian egin nahi zituen aldaketei buruz, gaiaz arduratuta. Ia urte erdi baten bueltan, hiriko irudiari dagokionari buruz galdetu eta soilik enpresaren kontratuari buruzko informazioa jaso ondoren, iazko urritik honako bidean gertaturikoak -kezken iturria- eta egungo egoera banan bana azaltzea beharrezkoak dira.

Beraz, lehenik eta behin hona hemen gertaturikoak, esan bezala, azaroaren hasieran lehen galdera erregistratu genuenetik:

**II.2.27. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU sobre la Corporación y la imagen corporativa.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación substanciada en la Comisión de Servicios Generales de 15 de mayo de 2017.

JUSTIFICACIÓN

Después de tener conocimiento de las primeras noticias en octubre del año 2016, intranquilos por la cuestión, hemos estado preguntando acerca de los cambios que el Gobierno municipal tenía pensado hacer en la imagen corporativa del Ayuntamiento. Casi medio año después, después de preguntar sobre la imagen de la ciudad y recibir solamente información relacionada con el contrato de la empresa, creemos que es necesario que se ofrezcan las pertinentes explicaciones sobre lo ocurrido —causa de la preocupación—desde octubre hasta hoy, y la situación actual.

Por lo tanto, he aquí todo lo acaecido, como antes se mencionaba, desde que registramos la primera pregunta en noviembre del año 2016:

• Azaroko batzordean, eta Udalaren logotipoari buruzko galdera bati erantzunez, Udal Gobernuak Udalaren irudi korporatibo osoa aztergai zegoela azaldu zuen, eta azterketa horren epea hiru hilabetekoa zela aurreratu zuen. Jakindakoaren arabera, Udal Gobernua logotipoa aldatzeko asmoz zebilen, eta operazioaren dimentsioa handia izan zitekeelakoan, asmo horiez galdetu genuen. Izan ere, hasieratik mahaigaineratu genuen horrelako erabaki batek izango zuen dimentsio handia, sinbolikoki, hala nola zabalpenaren ikuspuntutik, zein koste ekonomikoa dela eta; orduan genioen moduan, “Udaleko logotipoa leku ugaritan hedatua baitago, barne mailako idazki guztiez gain, kartelek, panelek, eraikinek eta abar luzek jasotzen dutelako. Beraz, halako aldaketak konplikatuak izateaz gain, hiriko irudia jokoan jartzen delako, koste handia izaten dute, leku askotako euskarriak ere aldatu behar izaten direlako.” Horregatik galdera egin genion Udal Gobernuari zehazteko zeintzuk ziren haren asmo zehatzak Udaleko logotipoari dagokionez, eta beste zehaztasun batzuk ere bai. Zinegotzi ordezkariak azaldu zuen hiru hilabetetan azterketaren eta soluziobideen berri jakingo zela.

• En la comisión de noviembre, en respuesta a una pregunta sobre el logotipo del Ayuntamiento, el Gobierno municipal señaló que se estaba llevando a cabo un estudio de la imagen corporativa en su conjunto, y avanzó que dicho proceso tendría una duración de tres meses. Según lo que se sabía, el Gobierno Municipal tenía intención de cambiar el logotipo, y, como esa operación podía ser de gran dimensión, les preguntamos sobre esas intenciones. En concreto, desde un principio pusimos sobre la mesa la gran dimensión que adquiriría una decisión de ese tipo, tanto simbólicamente como desde el punto de vista de la difusión y del coste económico que acarrearía; como decíamos entonces, "dado que el logotipo municipal está extendido por muchos lugares, además de en todos los escritos internos, porque lo recogen carteles, paneles, edificios y un largo etcétera. Por lo tanto, aparte de la complejidad de semejante cambio, se pone en juego la imagen de la ciudad, el coste económico es elevado, ya que hay que cambiar los soportes de muchos sitios”. Por todo ello, le hicimos la pregunta al Gobierno municipal, para que concretase cuáles eran sus intenciones concretas en lo que respecta al logotipo del Ayuntamiento y para que concretase otros detalles. El concejal delegado explicó que en tres meses se tendrían noticias sobre el estudio y las soluciones.

• Zer asmo zehatz ote zeuden kezkatuta, Donostia izenari dagokion iradokizuna ere egin genuen. Izan ere, 2015etik hona, hiriko izenaren erabilerarekin gorabehera ugari eta handiak izan direnez, beti “Donostia” hitza galtzaile, irudi korporatiboa aldatzeko asmoetan irizpide batzuk argi izatea beharrezkotzat jo genuen; eta hauxe da egin genuen iradokizuna:

• Preocupados con cuáles serían las intenciones concretas, también realizamos una sugerencia sobre la denominación de la ciudad. De hecho, dado que desde 2015 hasta la fecha ha habido grandes y abundantes problemas con el uso de la denominación de la ciudad, siempre en perjuicio de la denominación en euskera, “Donostia", consideramos preciso que existieran unos criterios claros en la intención de modificar la imagen corporativa; y ésta es la sugerencia que realizamos:

“Udal Gobernuak irudi korporatiboaren azterketa egiterakoan, gaia sakondu behar dienei irizpide eta azalpen argiak eman diezazkien berauek

“Cuando el Gobierno municipal vaya a realizar el estudio de la imagen corporativa, les tiene que facilitar criterios y explicaciones claras a los que

kontuan izan dezaten Donostia izena ezin dela galdu, kontrakoa baizik, eta hiriko irudi korporatiboan espazio nabarmena izan beharko lukeela."

vayan a profundizar en ese tema, para que tengan en cuenta que la denominación Donostia no se puede perder, sino todo lo contrario, y, a su vez, que debiera de ocupar un espacio preeminente en ella".

• Gardentasuneko zinegotzi ordezkariak emaniko erantzunek gaiari zegokion argia hasieratik eman ez zutenez, otsailean emaitzak zeintzuk ziren eta Udal Gobernuak horiexek behingoz noiz aurkeztuko zituen galdetu genuen. Otsailaren 27ra bitartean ezer ez zegoela jakiterik azaldu zuen zinegotzi ordezkariak, eta gehiago erantzutea ez zela posible.

• Como las respuestas que dio el concejal delegado de Transparencia no arrojaron la luz necesaria que el tema merecía desde el principio, en febrero preguntamos cuáles eran los resultados y cuando los iba a presentar el Gobierno municipal de una vez. El concejal delegado respondió que hasta el 27 de febrero no se podía saber nada, y que responder más allá no era posible.

• Beraz, berriz ere martxoan galdetu behar izan genuen egin nahi ziren aldaketen inguruan beharrezko informazioa jasotzeko modua egongo ote zen; eta hala, aurretik bi aldiz lau hilabeteko aldearekin galdeturikoari erantzuna jasotzeko aukera ote zegoen. Erantzunak, aldiz, ez zion argi eman irudi korporatiboari buruz eginiko aldaketari: berriz ere Udal Gobernuak kontratatu zuen enpresaren eta harekin eginiko enkarguaren inguruko informazioa besterik ez baitzuen eman. Halaber, bitarte horretan Udaleko beste talde batzuen ekimenak ere tartekatu ziren, Udal Gobernuak itxuraren inguruan eginikoetan iturburu zutenak.

• Por lo tanto, en marzo tuvimos que preguntar de nuevo a ver si habría manera de obtener información respecto a los cambios, y, así, poder recibir una respuesta a lo preguntado en las dos ocasiones anteriores —habían pasado cuatro meses entre pregunta y pregunta—, La respuesta, en cambio, no arrojó luz sobre los cambios realizados en la imagen corporativa, ya que solamente facilitó, otra vez, información relacionada con la empresa que había contratado y con el encargo que a esa empresa se le había hecho. A su vez, en ese espacio de tiempo se incluyeron varias iniciativas de otros grupos del Ayuntamiento, relacionadas con las acciones que había realizado el Gobierno municipal respecto a la imagen.

Azkenean apirileko udalbatzarraren bezperan, alegia, urte erdi beranduago, Udal Gobernuak bere asmoen berri eman zuen. Udal ordezkariok jaso genuen bilera baterako deia eta talde guztiok bertaratu ginen. Ekarpenak egiteko aukera ote zegoen galdetu genuen bertan, eta erabakiak hartuak zeudela ikusi genuen: bezperan prentsaurrekoetarako aretoko horma-panela aldatua, edo egun berean mota guztietako materialak ikur berriekin eginak (poltsak, koadernoak, bola-lumak, ea). Hala adierazi zitzaigun bileran bertan ere, erabaki

Al final, la víspera del Pleno de abril —esto es, medio año más tarde— el Gobierno Municipal expuso sus intenciones. Las representaciones municipales recibimos una convocatoria para una reunión, y comparecimos todos los grupos. En dicha reunión preguntamos si habría posibilidad de realizar aportaciones, y pudimos observar que las decisiones ya estaban tomadas: la víspera ya se había cambiado el panel de la sala de prensa, ese mismo día había todo tipo de materiales con los nuevos símbolos (bolsas, cuadernos, bolígrafos etc.). Así se nos comunicó también en la reunión;

formala astebetera hartu arren, maiatzaren 2ko Tokiko Gobernu Batzordean. Gai honetaz herritarrekin aritzeko ez da inongo bilera egin edo bide zabalik erabili.

aunque la decisión formal se tomaría en el plazo de una semana, en la Junta de Gobierno Local del 2 de mayo. No ha habido ninguna reunión con la ciudadanía o hecho uso de algunas de las vías abiertas.

Erabakiak soilik teknikoak izan direla justifikatu nahi izan du Udal Gobernuak, aldiz, hautuak egin dituenean. Lan tekniko hutsa delakoan, sinplifikazio eta uniformatzearen aldeko hautua egin du, zer kendu edo zer jarri onetsi du, zeuden aukeren artean. Bide luzea izan da informazio exkaxa jasotzeko. Bide laburra izan da gaiak duen dimentsioa kontuan hartuta, Udal Gobernuak ez baitu aukera eman Udalbatzaren kideon, Korporazioa osatzen dugunon iritzia jasotzeko.

Sin embargo, cuando ha optado por alguna, el Gobierno municipal ha querido justificar que las medidas han sido exclusivamente de carácter técnico. Con la justificación de que ha sido exclusivamente trabajo técnico, ha elegido la senda de la uniformización y de la simplificación, ha decidido qué poner y qué quitar de entre las diferentes posibilidades. Ha sido un largo camino, para, al final, recibir información insuficiente. Ha sido un corto camino teniendo en cuenta la dimensión que tiene el tema, ya que el Gobierno municipal no ha dado opción para recoger la opinión de los que formamos el Pleno, la opinión de la Corporación.

“Irudi korporatiboa” deitu duenari dagokion aldaketan Korporazioak parte hartzeko aukerarik ez izatea ezin ulerturik, aurkeztu genion Alkate Jaunari gaiari dagokion interpelazioa, honako mozio honi bide eman diona. Horren ondorioz, maiatzaren 15ean Zerbitzu Orokorretako Batzordean Lehendakaritzako zinegotzi ordezkaria saiatu zen, batetik, gaia dimentsio tekniko hutsean kokatzen eta, bestetik, Udal Gobernuari soilik dagokion erabakia dela agertzen. Hau da, irudi korporatiboaz Korporazioa osatzen duten kideek iritzia ematea ez dela bete beharrezkoa; ezta herritarrek edo langileek ematea ere.

Al no comprender que no tuviera la Corporación posibilidad de tomar parte en la modificación de la denominada “imagen corporativa”, presentamos a señor alcalde una interpelación al respecto, que dio origen a esta moción. A causa de ello, en la Comisión de Servicios Generales del 15 de mayo, el concejal delegado de Presidencia intentó, por un lado, situar el asunto únicamente en su dimensión técnica, y, de otro lado, manifestar que la decisión competía solamente al Gobierno municipal. Es decir, que no resulta necesario que los miembros de la Corporación expresen su opinión, ni tampoco la ciudadanía o la plantilla.

Interpelazioaren eztabaidan aurreratu genion Udal Gobernuari era honetan eginez gero, inongo kontsentsurik gabe, iraungitze-dataren arriskuaz, hiriko sinbologian eragiten duen erabaki bati dagokionean.

En el debate de la interpelación le adelantamos al Gobierno municipal que en caso de proceder de ese modo, sin consenso alguno, del riesgo de la fecha de caducidad, en una decisión que afecta a la simbología de la ciudad.

Gobernantza berriaren irizpideen arabera jokatzerakoan parte hartzea eta gardentasuna gako nagusiak dira. Hiriko sinbologian eragingo

Las claves principales de proceder según los criterios de la nueva gobernanza son la participación y la transparencia. No se dado la

duen erabakian ez zaio parte hartzeari aukera txikiena ere eman eta ez da erraztu gardentasunak eskatzen duen informazio maila.

mínima posibilidad de participar en una decisión que influirá en la simbología de la ciudad, ni se ha facilitado el nivel de información que exige la transparencia.

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

Es por ello por lo que la concejala que suscribe presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL

1.- Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari, gobernantza berriak oinarri dituen gardentasun eta parte hartze irizpideen arabera, hiri mailako izaera izan dezaketen gaiei dagokienez, materiari dagokion informazio maila eduki ondoren, aukera eman dezan Udalbatza osatzen duten kideek eta udal taldeek beren iritzia emateko, hala nola herritarrek ere beren iritzia emateko aukera izan dezaten, gutxienez Gizarte Kontseiluaren bidez.

1. El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a que, según los criterios de transparencia y participación en los que se basa la nueva gobernanza, en lo que atañe a asuntos que puedan tener naturaleza de ciudad, tras recabar la información que concierna a la materia, ofrezca la posibilidad a los miembros que componen el Pleno y a los grupos municipales de expresar su opinión, y que también la ciudadanía tenga la posibilidad de manifestar su sentir, al menos, mediante el Consejo Social.

Donostian, 2017ko maiatzaren 19an

En San Sebastián, a 19 mayo de 2017

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto la señora Dª. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.28. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Arte Ederrak Antzokiaren egoera dela eta.**

**II.2.28. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU sobre la situación del Teatro Bellas Artes.**

“EH Bildu taldeko zinegotzi Ricardo Burutaran Ferrék, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten dio azterkizun Udalbatzari, Arte Ederrak antzokiaren egoerari buruz. Mozioa joan den maiatzaren 12an Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Hilabete asko igaro dira gobernu taldeak 2015eko urriaren hasieran baimena eman zuenetik Arte Ederren Antzokiko kupula “kentzeko”, eta ordutik askotariko egitasmoak aurkeztu dira elementu hori berriro jar dadila eskatzeko.

Egia da, berandu bada ere, Hirigintza Sostengagarriko, Etxebizitzako eta Hiri Proiektuetako zinegotzi ordezkariak 2016ko ekainaren 11n eman zuen ebazpenaren bidez, erabaki zutela Arte Ederren Antzokiko kupula berreraikitzeko obrei ekitea, modu subsidiarioan. Horretarako, Alfonso Encio Múgica arkitekto jaunak idatzitako proiektu teknikoa onetsi zuten, gutxi gorabehera, 198.654,05 euroko aurrekontuarekin (BEZa sartu gabe).

Obra prozedura egokiaren bitartez kontratatzeko izapideak egin ostean, Hirigintza Sostengagarriko, Etxebizitzako eta Hiri Proiektuetako zinegotzi ordezkariak 2016ko urriaren 10ean eman zuen ebazpenaren bidez, erabaki zen iragarritako lizitazioa esleitu gabe uztea; izan ere, aurkeztutako bi eskaintzetatik, batek uko egin zion, teknikoki obra ezin zuelako eskainitako prezioan gauzatu, eta besteak, berriz, 458.479 euroko eskaintza aurkeztu zuen (BEZa sartu gabe).

Hori ikusirik, proiektua berriro aztertzeko eta aurrekontua eguneratzeko agindua eman zen, eta 213.401,26 euroan ezarri zen aurrekontua

“Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico de Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL para ser debatida en Pleno sobre la situación del Teatro Bellas Artes. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio el pasado 12 de mayo.

JUSTIFICACIÓN

Han pasado muchos meses desde la autorización, por parte del equipo de gobierno, a principios del mes de octubre del 2015, de la “retirada” de la cúpula del Teatro Bellas Artes, y han sido múltiples las iniciativas presentadas de cara a demandar la reposición del citado elemento.

Es cierto que, aunque con retraso, mediante Resolución del delegado de Urbanismo Sostenible, Vivienda y Proyectos de Ciudad de 11 de junio de 2016 se acordó proceder, mediante ejecución subsidiaria, a ejecutar las obras de reconstrucción de la cúpula del Teatro Bellas Artes, aprobando al efecto el Proyecto Técnico redactado por el arquitecto D. Alfonso Encio Múgica, con un presupuesto estimado de 198.654,05 euros (IVA no incluido).

Realizados los trámites para la contratación de la obra mediante el oportuno procedimiento, por resolución del concejal delegado de Urbanismo Sostenible, Vivienda y Proyectos de Ciudad de 10 de octubre de 2016, se acordó declarar desierta la licitación convocada dado que, de las dos ofertas presentadas, una renunció a la misma, ante la inviabilidad técnica de poder ejecutar la obra en el precio ofertado y la otra presentó una oferta con un importe de 458.479 euros (IVA excluido).

Ante esas circunstancias se decidió encargar una revisión del proyecto, con actualización del presupuesto, pasando a la cantidad de 213.401,26

(BEZa sartu gabe); zenbateko hori aurkeztutako eskaintzak zekarrena baino askoz ere txikiagoa zen. Tokiko Gobernu Batzarrak apirilaren 25ean onetsi zuen proiektu berrikusia.

Proiektu berrikusi horrek honako hau dio: “eraikina oso-osorik zaharberritzen denean jarriko da gargola”. Baita hau ere: “egitura prefabrikatua egitea erabakitzen bada, soluzio teknikoa zehaztu eta aurkeztu beharko da lanei ekin aurretik, zerbitzuak onets dezan” (Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerbitzu eskudunak).

Ez dakigu proiektu berrikusiaren zenbatekoa nahikoa ote den proiektu hori gauzatuko duten eskaintzak jaso ahal izateko, edo berriz ere esleitu gabe utzi beharko dugun lizitazioa, aurrekontuaren aurreikuspena nahikoa ez delako; ez baitakigu, halaber, kontuan hartu ote den aurrez gertaturikoa, eta ez dakigu proiektutik ezabatu ote diren jatorrizko proiektuan jasotako eta berrikusitik kendutako partidetako batzuk (aurrekontu sail horiek ezabatzeak proiektu osoaren zenbatekoa gutxituko luke).

Bestalde, Justizia Auzitegi Nagusiak SADEk 2015eko martxoaren 4ko Aginduari jarritako 196/2017 errekurtsoaren inguruan eman duen epaiaren berri izan dugu duela gutxi (agindu horretan, Arte Ederren eraikina kultur ondasuntzat jotzen da, eta monumentuaren kategoria ematen zaio). Errekurtso horretan, SADE enpresak Donostiako Udala eta Eusko Jaurlaritza demandatu ditu.

Gai horretaz udal Gobernuari galdetuta, Hirigintza Sostengagarriko, Etxebizitzako eta Hiri Proiektuetako zinegotzi ordezkariak, azken gaiaren inguruan, ondokoa erantzun zigun: “Ez dago beste berririk udalaren aldetik. Epaia emanda datorkigu”. Halere, Udalak auzian parte hartu du alderdi demandatu kide moduan.

euros (IVA excluido); cantidad muy inferior a la que fue ofertada en la oferta presentada. Dicho proyecto revisado fue aprobado por la Junta de Gobierno Local de 25 de abril.

En dicho Proyecto revisado se dice: “La disposición de la gárgola se deberá hacer cuando se proceda a una actuación integral sobre el edificio”. Así como: “Si se decidiera realizar la estructura prefabricada, previamente a la ejecución se deberá detallar y presentar la solución técnica para que sea aprobada por el servicio” (referido al Servicio correspondiente de la Diputación Foral de Gipuzkoa).

No sabemos, si la cantidad del Proyecto revisado es suficiente para que pueda haber ofertas que ejecuten el referido proyecto de reposición o nos puede pasar nuevamente que vuelva a quedar desierto por insuficiencia en la previsión del presupuesto; no sabemos si se han tenido en cuenta las circunstancias ocurridas anteriormente, y no sabemos si, quizás, se han eliminado del proyecto algunas partidas previstas en el proyecto originario y no en el revisado, con la consiguiente minoración económica del total del proyecto a ejecutar.

Por otro lado, recientemente hemos tenido noticia de la Sentencia del Tribunal Superior de Justicia 196/2017 interpuesto por la SADE con la Orden de 4 de marzo de 2015, por la que se inscribe al edificio Bellas Artes como Bien Cultural con la categoría de Monumento. En este recurso el Ayuntamiento de Donostia ha sido demandado, junto con el Gobierno Vasco.

Interpelado al respecto el Gobierno Municipal, el delegado de Urbanismo Sostenible, Vivienda y Proyectos de Ciudad, con respecto a esta última cuestión, nos contestó lo siguiente: “No hay ninguna novedad por parte municipal. La sentencia nos viene dada”. Sin embargo, el Ayuntamiento ha sido parte activa en el proceso

Bestalde, kupula besteren ordez ezartzeari dagokionez. Hirigintza Sostengagarriko zinegotzik onartu zuen akats bat gertatu zela Erroldarekin ez koordinatzearen ondorioz. Ordezkaria egiatia izatea eskertzen dugu, huts egin dutela onartu izanagatik, dena dela, penagarria da horrek berriz atzeratzea Arte Ederrak eraikineko kupula berriro ezartzeko betebeharra.

Aurtengo maiatzaren 17an izan zen Ondarearen Foroa eratzeko bilkuran, Arte Ederrak eraikinaren egoera izan zen kezka gehien sortu zuen gaietako bat.

Hori guztia kontuan, zinegotzi izenpetzaile honek honako KONTROL MOZIO hau egiten dut:

1. Udalbatzak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio, SADEk egindako alegazioa formalki ebatzi ondoren, ahalik eta eperik laburrenean espedientea hasi eta bukatzeko, inoren ordez jardunda, Arte Ederrak eraikineko kupula berriro ezarri eta eraikina berriz osorik uzteko.

2. Udalbatzak Gobernu taldeari hertsatuki eskatzen dio, alderdi demandatu kide den aldetik, errekurtsoa aurkeztea ebazteko, Justizia Auzitegi Nagusiaren 196/2017 epaia dela eta.

Donostian, 2017ko maiatzaren 19an

Sinatua: Ricardo Burutaran Ferré,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

en su calidad de codemandado.

Por otra parte, en lo que se refiere a la ejecución subsidiaria de la reposición de la cúpula, el delegado de Urbanismo Sostenible reconoció que "había existido un error por una descoordinación con el Registro". Agradeciendo la franqueza del delegado al asumir la existencia de un error, es una verdadera pena que el mismo vuelva a suponer un nuevo retraso en el cumplimiento de la obligación de reposición de la cúpula del Bellas Artes.

En la reunión del recientemente constituido "Foro de Patrimonio", celebrada el 17 de mayo del presente, la situación del Bellas Artes volvió a ser una de las cuestiones que más preocupación suscitó.

A la vista de todo ello, el concejal que suscribe presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a que, tras resolver formalmente la alegación presentada en su momento por la SADE, inicie y culmine, en el menor tiempo posible, el expediente para, en ejecución subsidiaria, reponer la cúpula del Bellas Artes devolviéndole al edificio su integridad.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de gobierno a acordar, en su calidad de codemandado, el recurso de la Sentencia del Tribunal Superior de Justicia 196/2017.

En Donostia, a 19 de mayo de 2017

Sin: Ricardo Burutaran Ferré
Concejal del Grupo Municipal EH BILDU".

Eztabaida hasita, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Loïc Alejandro jaunak, Enrique Ramos Vispo jaunak eta Alkate-Udalburuak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Ricardo Burutarán Ferré, D. Loïc Alejandro, D. Enrique Ramos Vispo y Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**28. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 28:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**28. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 28:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 6 – EH BILDU.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 5 – (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 6 – EH BILDU.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 5 – (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

---------------

**ETA BILERAK BESTE XEDERIK EZ DUENEZ, LEHENDAKARITZAK, AKTAKO LEHEN ORRIAREN BURUAN ADIERAZITAKO EGUNEKO ARRATSALDEKO BOSTAK ETA HEMERETZI MINUTUTAN AMAITUTZAT JO DU BILERA. ETA NIK, IDAZKARI NAIZEN ALDETIK, BILERAN ESANDAKO GUZTIAREN FEDE EMATEN DUT:**

**Y NO SIENDO OTRO EL OBJETO DE LA SESIÓN, LA PRESIDENCIA LA DECLARA TERMINADA, LEVANTÁNDOSE EL ACTO, SIENDO LAS DIECISIETE HORAS DIECINUEVE MINUTOS DE LA FECHA EXPRESADA EN EL ENCABEZAMIENTO DE LA PRESENTE ACTA, DE TODO LO CUAL, YO, EL SECRETARIO, DOY FE:**

**LEHENDAKARIA: / EL PRESIDENTE:**

**IDAZKARIA: / EL SECRETARIO:**